

2012

Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorrak

Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi

- **SEKZIOAK**

- 07- Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoa
- 08- Enplegu eta Gizarte Gaiak
- 09- Osasun eta Kontsumoa

- **SECCIONES**

- 07 - Industria, Innovación, Comercio y Turismo
- 08 - Empleo y Asuntos Sociales
- 09 - Sanidad y Consumo

Administrazio Orokorra Administración General



4

Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorrak

Presupuestos Generales de la
Comunidad Autónoma de Euskadi

2012

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

EKONOMIA ETA OGASUN
SAILA

DEPARTAMENTO DE ECONOMÍA
Y HACIENDA

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2012

Argitaratzailea: **Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia**
Edita: Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Inprimaketa: **Eusko Jaurlaritzaren Inprenta eta Erreprografia Zerbitzua**
Imprime: Servicio de Imprenta y Reprografía del Gobierno Vasco

Lege gordailua: **BI 900-1983**
Depósito Legal:

07tik 09ra bitarteko sekzioak
Secciones 07 a 09

4 Alea
Tomo 4

Aurkibidea / Índice :

-	07 INDUSTRIA, BERRIKUNTZA, MERKATARITZA ETA TURISMOA.....	1
	<i>07 INDUSTRIA, INNOVACIÓN, COMERCIO Y TURISMO</i>	
-	Sekzioaren eta Programen Memoriak	3
	<i>Memorias de la Sección y de los Programas</i>	
-	Gastuen egoera.....	79
	<i>El Estado de Gastos</i>	
	5211 Euskadi Informazioaren Gizartean Plana	81
	<i>Plan Euskadi en la Sociedad de la Información</i>	
	5413 Teknologia	83
	<i>Tecnología</i>	
	7211 Industria, B, M, T-07 Sail. Egitura eta Laguntza	87
	<i>Estructura y Apoyo del Dpto. 07-Industria, I.,C.T</i>	
	7212 Industria Garapena eta Ekintzaileen Laguntza	95
	<i>Desarrollo Industrial y Apoyo a Emprendedores</i>	
	7213 Industria Segurtasuna.....	101
	<i>Seguridad Industrial</i>	
	7214 Berrikuntza eta Lehiakortasun Estrategia.....	103
	<i>Innovación y Estrategia de Competitividad</i>	
	7311 Energia eta Meatze Politika eta Garapena.....	109
	<i>Política y Desarrollo Energético y Minero</i>	
	7511 Turismoa.....	111
	<i>Turismo</i>	
	7612 Barne Merkataritza	117
	<i>Comercio Interior</i>	
	7613 Nazioartekotzea	123
	<i>Internacionalización</i>	
-	Diru-sarrerren egoera	127
	<i>El Estado de Ingresos</i>	
	5413 Teknologia	129
	<i>Tecnología</i>	
	7211 Industria, B, M, T-07 Sail. Egitura eta Laguntza	131
	<i>Estructura y Apoyo del Dpto. 07-Industria, I.,C.T</i>	
	7212 Industria Garapena eta Ekintzaileen Laguntza	133
	<i>Desarrollo Industrial y Apoyo a Emprendedores</i>	
	7213 Industria Segurtasuna.....	135
	<i>Seguridad Industrial</i>	
	7311 Energia eta Meatze Politika eta Garapena.....	137
	<i>Política y Desarrollo Energético y Minero</i>	
	7511 Turismoa.....	139
	<i>Turismo</i>	
	7612 Barne Merkataritza	141
	<i>Comercio Interior</i>	
	7613 Nazioartekotzea	143
	<i>Internacionalización</i>	
-	Gastuen Laburpenak	145
	<i>Resúmenes de Gastos</i>	
-	Sarrerren Laburpenak	149
	<i>Resúmenes de Ingresos</i>	

-	08 ENPLEGU ETA GIZARTE GAIAK.....	153
	08 EMPLEO Y ASUNTOS SOCIALES	
-	Sekzioaren eta Programen Memoriak.....	155
	<i>Memorias de la Sección y de los Programas</i>	
-	Gastuen egoera.....	225
	<i>El Estado de Gastos</i>	
	3111 Enplegu eta GG-08 Sail. Egitura eta Laguntza	227
	<i>Estructura y Apoyo del Dpto. 08-Empleo y A. Socia</i>	
	3112 Lana	233
	<i>Trabajo</i>	
	3121 Gizarteratzea	239
	<i>Inclusión Social</i>	
	3122 Inmigrazioa	241
	<i>Inmigración</i>	
	3123 Gizarte Zerbitzuak	247
	<i>Servicios Sociales</i>	
	3124 Familia eta Komunitate Politika	255
	<i>Política Familiar y Comunitaria</i>	
	3211 Enplegua	263
	<i>Empleo</i>	
	3212 Gizarte Ekonomia	265
	<i>Economía Social</i>	
	3231 Prestakuntza.....	269
	<i>Formación</i>	
	5211 Euskadi Informazioaren Gizartean Plana.....	271
	<i>Plan Euskadi en la Sociedad de la Información</i>	
-	Diru-sarreraren egoera.....	273
	<i>El Estado de Ingresos</i>	
	3111 Enplegu eta GG-08 Sail. Egitura eta Laguntza	275
	<i>Estructura y Apoyo del Dpto. 08-Empleo y A. Socia</i>	
	3112 Lana	277
	<i>Trabajo</i>	
	3121 Gizarteratzea	279
	<i>Inclusión Social</i>	
	3122 Inmigrazioa	281
	<i>Inmigración</i>	
	3123 Gizarte Zerbitzuak	283
	<i>Servicios Sociales</i>	
	3124 Familia eta Komunitate Politika	285
	<i>Política Familiar y Comunitaria</i>	
	3211 Enplegua	287
	<i>Empleo</i>	
	3212 Gizarte Ekonomia	289
	<i>Economía Social</i>	
-	Gastuen Laburpenak.....	291
	<i>Resúmenes de Gastos</i>	
-	Sarreraren Laburpenak	295
	<i>Resúmenes de Ingresos</i>	
-	09 OSASUN ETA KONTSUMOA.....	299
	09 SANIDAD Y CONSUMO	
-	Sekzioaren eta Programen Memoriak.....	301
	<i>Memorias de la Sección y de los Programas</i>	
-	Gastuen egoera.....	373
	<i>El Estado de Gastos</i>	
	4111 Osasun eta Kontsumoa-09 Sai. Egitura eta Laguntza	375
	<i>Estructura y Apoyo del Dpto. 09-Sanidad y Consumo</i>	
	4112 Osasun Finantzaketa eta Kontratazioa	395
	<i>Financiación y Contratación Sanitaria</i>	

4113	Osasun Publikoa.....	405
	<i>Salud Pública</i>	
4114	Osasun Ezagutzaren Kudeaketa eta Ebaluazioa	413
	<i>Gestión del Conocimiento y Evaluación Sanitaria</i>	
4115	Farmazia	417
	<i>Farmacia</i>	
4116	Drogamendekotasunak	421
	<i>Drogodependencias</i>	
4431	Kontsumoa.....	425
	<i>Consumo</i>	
-	Diru-sarrereren egoera	427
	<i>El Estado de Ingresos</i>	
4111	Osasun eta Kontsumoa-09 Sai. Egitura eta Laguntza	429
	<i>Estructura y Apoyo del Dpto. 09-Sanidad y Consumo</i>	
4113	Osasun Publikoa.....	433
	<i>Salud Pública</i>	
4114	Osasun Ezagutzaren Kudeaketa eta Ebaluazioa	437
	<i>Gestión del Conocimiento y Evaluación Sanitaria</i>	
4115	Farmazia	439
	<i>Farmacia</i>	
4116	Drogamendekotasunak	441
	<i>Drogodependencias</i>	
-	Gastuen Laburpenak	443
	<i>Resúmenes de Gastos</i>	
-	Sarrereren Laburpenak	447
	<i>Resúmenes de Ingresos</i>	



**07 INDUSTRIA, BERRIKUNTZA, MERKATARITZA ETA
TURISMOA**

07 INDUSTRIA, INNOVACIÓN, COMERCIO Y TURISMO



Sekzioaren eta Programen Memoriak
Memorias de la Sección y de los Programas



INDUSTRIA, BERRIKUNTZA, MERKATARITZA ETA TURISMOA

INDUSTRIA, INNOVACIÓN, COMERCIO Y TURISMO

Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailak ekonomia aldatzeko iaz zuen borondate berarekin egingo dio aurre legegintzaldi honetako hirugarren aurrekontuari. 2012ko aurrekontuak kontinuista izan behar du nahitaez eta aurreko bi urteetan hasitako ekintzetan sakondu behar du. 2012. urtean Euskadiko hazkundea sendotu behar da, ingurune ezegonkor batean, non aurreikuspenak merkatuak bezain aldakorrak diren.

Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailaren aurrekontuen helburua ekonomia errealearen martxa indartzea da eta ekonomia hori bultzatzea aberastasuna eta enplegua sortzeko. Sailak eraginkorra den tresna bat dauka, 2010-2012 aldiko Enpresa Lehiakortasuneko Plana. Joan den ekitaldian lehiakortasuna aldatzeko gida gisa aurkeztu zen; aurten, aldiz, ezarritako helburuetan sakondu beharko dugu, Plan horren lehenengo ebaluazioa egin beharko dugu, eta beharrezkoa baldin bada, zuzenketak egingo ditugu beldurrik gabe aurrera egiteko.

Lehiakortasuneko Planak funtsezko hiru ardatz ditu: ekonomia irekia lortzea, ekonomia berritzailea, ekintzailea eta teknologikoki aurreratua lortzea eta ekonomia iraunkorra lortzea. Hiru ardatz horiek Sailaren Zuzendaritza guztien ekintza eta aurrekontu-orientazioa ezartzen dituzte.

Sailak azken urte honetan egokitu egin ditu bere programak, Lehiakortasuneko Planera egokitzeko. Lan hori sakondu egin behar da. Euskadi ez dago mundutik eta munduan dagoen ziurgabetzia-egoeratik kanpo, eta bereziki, euroarekin lotutako ekonomietatik kanpo. Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailak badaki hori eta kontzienteki jardun nahi du enpresa-sareari laguntzeko eta aberastasuna eta enplegua sortzen laguntzeko.

Datorren urteari begira, esan beharra dago ziurgabetasuna eta beldurra nagusitzen direla, baina, era berean, ikusten da mundua, orokorrean, hazten ari dela. Euskadik bere ingurunera begiratu behar du, baina hazten ari diren ekonomiei ere begiratu behar die, eta hazkunde horri heldu. Ezin da baztertu zerga-finkapenarekiko, gastu publikoaren kontrolarekiko eta baliabide urriak hautatzeko eta erabiltzeko premiarekiko konpromisoa. Agintariak hautatu egin behar dute eta ahaleginak egin behar dituzte okerreko bidea ez hartzeko. Are gehiago baliabideak urriak direnean.

Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailak ekonomia sustatzeko aurreko urteetan gauzatu dituen politika berak sustatuko ditu eta indartu egingo ditu. Sailaren aurrekontu globala murriztu egin da aurreko urtekoarekin alderatzen badugu; aitzitik, inbertsioa eta I+G+B+Narekiko babesa igotzen ari dira. Ahalegin berezia egin da gastu arrunta murrizteko eta baliabide publikoekin lotutako eta ekonomiaren dinamizatzaile gisa ondorio azkarrak izango dituzten baliabideen efektu biderkatzaile handiagoa duten jarduerak aukeratzeko.

El Departamento de Industria, Innovación, Comercio y Turismo se enfrenta al tercer presupuesto de la presente legislatura con la misma voluntad de transformar la economía que el pasado año. El presupuesto de 2012 no puede sino ser continuista y profundizar en las acciones emprendidas los dos años anteriores. 2012 debe ser el año de la consolidación del crecimiento en Euskadi en un entorno inestable en el que las predicciones son tan volátiles como los mercados.

El objetivo de los presupuestos del Departamento de Industria, Innovación, Comercio y Turismo debe ser consolidar la marcha de la economía real y estimularla para generar riqueza y empleo. El Departamento cuenta con un instrumento que se ha mostrado eficaz, el Plan de Competitividad Empresarial 2010-2012. Si el pasado ejercicio se presentaba como la guía para la transformación competitiva, este año no queda sino profundizar en los objetivos marcados, hacer su primera evaluación y si es necesario corregir para avanzar y hacerlo sin miedo.

El Plan de Competitividad cuenta con tres ejes fundamentales: Una economía abierta, una economía innovadora, emprendedora y tecnológicamente avanzada y una economía sostenible. Los tres marcan la acción de cada una de las direcciones del Departamento y la orientación presupuestaria.

El Departamento ha adaptado a lo largo del último año sus programas para adaptarlos al Plan de Competitividad. Este trabajo debe ser profundizado. Euskadi no es ajena al mundo y a la situación de incertidumbre que recorre el mundo y en especial las economías ligadas al euro. El Departamento de Industria, Innovación, Comercio y Turismo lo sabe y quiere actuar de forma consciente para apoyar al tejido empresarial y a la generación de riqueza y empleo.

Las expectativas para el próximo año muestran incertidumbre y miedo, pero muestran también que el mundo de forma global sigue creciendo. Euskadi debe mirar a su entorno pero también mirar a las economías que crecen y engancharse a su crecimiento. No se puede eludir el compromiso con la consolidación fiscal, con el control del gasto público y con la necesidad de elegir y manejar recursos escasos. La obligación de quienes gobiernan es elegir y procurar no equivocarse. Más aún cuando los recursos son escasos.

El Departamento de Industria, Innovación, Comercio y Turismo va a promover las mismas políticas de estímulo económico de años anteriores y las va a reforzar. El presupuesto global del departamento se reduce respecto al año anterior, sin embargo, la inversión y el apoyo a la I+D siguen subiendo. Se ha hecho un esfuerzo especial en reducir el gasto corriente y en elegir aquellas actividades con mayor efecto multiplicador de recursos privados asociados a los públicos y que tengan efectos rápidos como dinamizadores de la economía.

Teknologiari eta nazioartekotzeari buruzko programak Sailaren programa izarrak dira arrisku-kapitaleko funtsekin batera. Helburua baliabide publikoak gelditzea da, ahalik eta baliabide pribatu gehien mugiarazteko. Ziur gaude enplegua jarduera ekonomikoari esker sortzen dela. Ziur gaude aurrekontu-zorroztasunari eutsi behar zaiola, baina ekonomia sustatu behar dela.

Europako Batzordeak Industria Politika integratua globalizazioaren garairako: lehiakortasuna eta iraunkortasuna jomugan jartzea deituriko dokumentuan adierazten duenez, “berrikuntzan batez bestekotik gorako errendimenduak dituzten Estatu kideek modu proaktiboan erantzun zioten krisi ekonomikoari, bereziki denbora-neurri gehigarriak erabiliz ikerketa eta berrikuntza sustatzeko”. Horixe da Euskadiren kasua eta Sailak horrela jarraitzea nahi du.

Euskadik gainerako ekonomia arrastatzen duen industria-sektore indartsua du, Euskadiko BPGaren % 26 da eta Euskadiko ekonomiaren lehiakortasun-abantaila izaten jarraitu behar du. Euskadiko enpresak mundu osoan lehiatzen dira, eta, askotan, ezkutuko edo nitxoko multinazionalak dira, lider absolutuak beren sektoreetan.

Abantaila horri eutsi behar zaio kalitatezko enplegua bermatuko baitu abantaila horrek. Arestian aipatutako Europako Batzordeko txostenean honako hau ere aipatzen da: “220 milioi langileko eta 20 milioi enpresako merkatu batean, Europar Batasuneko sektore pribatuko lau enplegutik bat manufaktura-industrian dago, eta lautik gutxienez batek lotutako zerbitzuekin –hornitzaile eta bezero gisa industriaren mende daudenekin– zerikusia du. Horrek esan nahi du lautik bi industria berriarekin lotuta daudela. Sektore pribatuko ikerketaren % 80 industrian dago”. Jaurlaritzak sustatu egin behar du indar hori, ongizatea bultzatzeko eta enplegua sortzeko.

Jaurlaritzak bizirik eta oso aktibo eusten die Lehiakortasuneko Planean bilduta dauden eta 2012ko aurrekontu osoa eraginpean hartu behar duten hiru estrategiei: Eutsi, Lehiatu eta Buru izan.

Oraindik ez da krisialdia amaitu, eta, gaur egun, enpresa askok Jaurlaritzaren laguntza behar dute krisiak eragindako gorabeherak gainditi ahal izateko. Finantza-merkatuen murrizte-egoerak ez du geldiarazi behar proiektu berriek garatutakoa, eta, halaber, ez du erronka berrietarako prestatuta egotea eragotziko duen oztopo izan behar.

Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailak iaz hasitako zereginarekin jarraitu nahi du, hau da, doikuntzak berarekin zuzenean lankidetzan aritzen diren erakundeei ere eraman nahi dizkie. Horrela, 2010ean, hitzarmen kopuruak murrizten edo esleitutako diru-kopuruak txikiagotzen hasi zen. Hitzarmen asko desagertu dira, eta horien bitartez egindako lana, berriz, programa lehiakorretara aldatu da, Sailaren barruan nahiz haren sozietate publikoetan. Bide horretan gehiago sakondu behar da.

Los programas de tecnología y de internacionalización se han convertido en los programas estrellas del Departamento junto a los fondos de capital riesgo. El objetivo es apalancar los recursos públicos para movilizar el mayor número posible de recursos privados. Estamos convencidos que el empleo se crea gracias a la actividad económica. Estamos convencidos de que hay que mantener el rigor presupuestario pero que hay que estimular la economía.

Como señala la Comisión Europea en el documento una política Industrial integrada para la era de la globalización: poner la competitividad y la sostenibilidad en el punto de mira “los Estados miembros con rendimientos en innovación por encima de la media respondieron de forma proactiva a la crisis económica utilizando especialmente medidas temporales adicionales para estimular la investigación y la innovación”. Este es el caso de Euskadi y es la voluntad del Departamento que siga siendo así.

Euskadi cuenta con un sector industrial potente que arrastra al resto de la economía, representa el 26% del PIB vasco y debe seguir siendo la ventaja competitiva de la economía vasca. Las empresas vascas compiten en todo el mundo y son en muchos casos multinacionales escondidas o de nicho, líderes absolutos en sus sectores.

Esta ventaja debe mantenerse porque es en sí misma una garantía de empleo de calidad. El citado informe de la Comisión Europea señala también: “En un mercado de 220 millones de trabajadores y 20 millones de empresas, uno de cada cuatro empleos en el sector privado en la Unión Europea está en la industria manufacturera y al menos uno de cada cuatro está relacionado con los servicios vinculados que dependen de la industria como proveedores y clientes. Significa que dos de cada cuatro están asociados a la nueva industria. El 80% de la investigación del sector privado está en la industria”. Es obligación del Gobierno potenciar esta fortaleza con el objetivo de fomentar el bienestar y generar empleo.

El Gobierno mantiene viva y muy activas sus tres estrategias, que se recogen en el Plan de Competitividad y deben recorrer el presupuesto de 2012: Resiste, Compite y Lidera.

La crisis no nos ha abandonado aún y muchas empresas precisan todavía hoy el apoyo del Gobierno para poder sobrevivir a sus turbulencias. La situación de restricción de los mercados financieros no puede ser un freno al desarrollado de nuevos proyectos ni debe ser un lastre que impida estar preparados para nuevos desafíos.

El Departamento de Industria, Innovación, Comercio y Turismo tiene la voluntad de continuar con la tarea ya iniciada el pasado año de trasladar los ajustes a las organizaciones con las que colaboran directamente. Así, inició en 2010 una reducción en el número de convenios o una disminución en sus asignaciones. Muchos convenios desaparecen y la labor realizada a través de los mismos pasa a programas competitivos, bien dentro del propio Departamento o en sus sociedades públicas. Hay que profundizar en esta vía.

Planak aplikatzen duen beste elementu bat zeharkakotasuna dugu; izan ere, aurrekontuetan jasota dago. Saila iaz modu berebean tratatzen hasi zen enpresa guztiak, txikiak nahiz handiak, bakoitzaren berezitasunak gutxietsi gabe. Industriak, merkataritzak eta turismoak aukera berberak izan behar dituzte, garapen-palanka bilakatu. Lortzen ari gara eta erronkari eutsi egin behar zaio.

Jaurlaritzaren helburuetako bat horiek guztiek modu koordinatuan funtziona dezaten lortzea da, gainerako sektore ekonomikoen esperientzia eta gaitasuna aprobetxatuz. Zerbitzuak modernizatu behar ditugu, lehiakor bilakatu. Turismoak goranzko lineari eutsi behar dio eta herrialde irekia eta lehiakorra delako irudia eskaini behar du.

2012ko ekitaldiak krisialdiaren amaiera finkatzeko ez ezik Espainia osoan aitzindari izateko zereginarekin jarraitzeko ere balio behar du; horretaz gain, itxaropenari ateak irekitzea ahalbidetu behar du, Euskadiko enpresei eta ekonomia osoari Europako hoberenen artean egotea ahalbidetuko dieten ateak, alegia. Horretaz gain, Jaurlaritzak adi egon behar du nazioarteko egoera alda daitekeelako eta bizkor eta malgutasunez erreakzionatu behar delako produkzio-sarearen premien aurrean.

Otro elemento que aplica el Plan y está en los presupuestos es el de transversalidad. El Departamento comenzó el pasado año a tratar a todas las empresas, grandes o pequeñas, por igual, sin despreciar sus particularidades. La industria, el comercio y el turismo deben contar con iguales oportunidades y deben ser palancas de desarrollo. Lo estamos logrando y hay que mantener el reto.

El objetivo del Gobierno es que funcionen de manera coordinada y aprovechen la experiencia y capacidad de los otros sectores económicos. Los servicios deben modernizarse y ser competitivos. El turismo debe mantener su línea ascendente y ofrecer una imagen de país abierto y competitivo.

El ejercicio 2012 debe servir para apuntalar la salida de la crisis, debe servir para continuar con la tarea de liderazgo en el conjunto de España y debe permitir abrir puertas a la esperanza que permitan a las empresas vascas y al conjunto de la economía estar entre las mejores de Europa. Además es obligación del Gobierno permanecer atento a la cambiante coyuntura internacional para reaccionar rápido y de forma flexible a las necesidades del tejido productivo.

PROGRAMA	PROGRAMA
5211 EUSKADI INFORMAZIOAREN GIZARTEAN PLANA	5211 PLAN EUSKADI EN LA SOCIEDAD DE LA INFORMACIÓN
ARDURADUNA	RESPONSABLE
<u>07 INDUSTRIA, BERRIKUNTZA, MERKATARITZA ETA TURISMOA</u>	<u>07 INDUSTRIA, INNOVACIÓN, COMERCIO Y TURISMO</u>
BERRIKUNTZAREN ETA INFORMAZIO GIZARTEAREN ZUZENDARIA	DIRECTOR DE INNOVACIÓN Y SOCIEDAD DE LA INFORMACIÓN

MEMORIA

Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiaek (IKT) izan duten garapen bizkorak eragin du Informazioaren Gizartea deiturikoa errealitate bihurtzea, informazioa sortzeak, banatzeak eta erabiltzeak jardura sozialetan, kulturaletan eta ekonomikoetan paper garrantzitsu bat jokatzeko ahalbidetu duten baliabideak izateari esker.

IKTak faktore garrantzitsua dira eta produktibitatean, lehiakortasunean, berrikuntzan, hazkunde ekonomikoan eta enplegu-sorkuntzan hobekuntza nabariak ahalbidetu dituzte. Europako Batzordearen arabera IKTak produktibitate-hazkuntzaren erdiaren erantzule dira baita Europako BPGaren % 5aren erantzule zuzenak eta I+D+G egiten den inbertsioaren herenarenak ere. IKTek berrikuntza-ahalmen handia dutenez, produktibitatea haztea ahalbidetzen duen zirkulu birtuosoa sortzen dute. Dagokigun sektorearen dinamismo-mailak beste sektore batzuen funtzionamendu-modua aldatzeko ahalmen handia ematen dio sektoreari baita herritar askoren bizitza-modua aldatzekoa ere.

Eraginkortasuna eta lehiakortasuna hobetzeaz gain, IKTak tresna ezin hobea dira enpresa-ideia berriak gauzatu ahal izateko. Lehiakortasun globalaren paradigma berrian arrakastaz jokatu ahal izateko behar den sare sozio-ekonomiko indartsua sortzea sustatzen duen berrikuntzarako oinarrizko palanka-lana egiten dute IKTek. IKTen aldeko apustua eta Informazio Gizartea indartzea krisiari aurre egiteko erantzun adimendunak dira.

El vertiginoso desarrollo de las Tecnologías de la Información y la Comunicación (TICs) ha hecho que la denominada Sociedad de la Información sea ya una realidad, gracias a la dotación de unos medios que hacen que la creación, distribución y manipulación de la información juegue un papel importante en las actividades sociales, culturales y económicas, el cual crece además de forma exponencial.

Las TICs son un importante factor que está permitiendo unos notables incrementos de la productividad, la competitividad, la innovación, el crecimiento económico y la creación de empleo. La Comisión Europea estima que las TICs son responsables de la mitad del crecimiento de la productividad, son responsable directo del 5% del PIB europeo y de una tercera parte de la inversión en I+D. Las TICs, con su alta capacidad de innovación, generan un círculo virtuoso para el incremento de la productividad. El alto grado de dinamismo inherente al sector hace que tenga una elevada capacidad para transformar el modo de funcionamiento de otros sectores, y aún más allá, el modo de vida de buena parte de la ciudadanía.

Además de mejorar la eficiencia y la competitividad, las TIC constituyen un instrumento inmejorable para la materialización de nuevas ideas empresariales. Las TIC son una palanca fundamental para la innovación que refuerza la consecución de un tejido socio-económico robusto para lidiar con éxito en el nuevo paradigma de competitividad global. La apuesta por las TICs y el refuerzo de la Sociedad de la Información se convierten por tanto en una inteligente respuesta a la crisis.

Bestetik, Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailari egokitutako eginkizunen artean dago "euskal gizartean Informazioaren eta Ezagutzaren Gizartea sustatzea eta garatzea, Administrazio eta Gobernu elektronikoaren arloko jarduerak alde batera utzi gabe", Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen lehendakariaren uztailaren 30eko 20/2009 Dekretuari jarraiki.

Eginkizun hori "Euskadi Informazio Gizartean Plana 2015: Euskadiko Agenda Digitala" izenburua duen plana landuz, gauzatu da, eta geroago kudeatuz eta koordinatuz. Plan horretan IKTen eta Informazio Gizartearen arloan eskumena duten Eusko Jaurlaritzaren sail guztien jardura biltzen da. 2011n egin zen Plan hori, eta Jaurlaritzaren sail guztiek ez ezik, zegozkion kanpo-agenteeek ere hartu zuten parte bertan.

Ikuspuntua honako funtsezko zutabe hauetan oinarrituta dago, eta zutabe horiek, elkarrekin loturik, planaren ikuspegia osatzen dute:

- Gizarte aditua, parte-hartze maila handikoa eta erantzunkidea, inpaktu handiko zerbitzu digital aurreratuak erabiltzen dituen.
- Berrikuntzaren eta iraunkortasunaren aldeko apustua egiten duen gizartea, IKTak babes gisa harturik lehiakortasunaren hazkundearen eragileak diren heinean.
- IKTen gaitasunak pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko eta ongizate kolektiboa bermatzeko erabiltzen dituen gizartea.
- Guztiz konektatutako gizartea, azpiegituren eremuan eta Informazio Gizartearen erabileretan erreferentziatzeko eredu izango dena.

Ikuspegi hori lortzeko, alde batetik, sistemak funtzionamendu egokiaren bermea eratzen duten hiru euskarritan oinarritu behar du:

- Gaikuntza teknologikoa, gizarteratzea eta eskuragarritasun soziala sustatzea, pertsona eta erakunde guztientzat.
- Azken belaunaldiko azpiegitura seguru, gaitu, irisgarri, eta ultrabizkor batzuen interoperatibitatea eta eskuragarritasuna ziurtatzea.
- Konfiantza eta segurtasun digitala bultzatzea.

Ikuspegi horren garapena lau ardatz estrategikoren inguruan egituratu da. Elkarri estu lotuta daude eta elkarri laguntzen diote ardatz horiek, eta ardatz horietatik abiatuta hedatuko dira beharrezko jardunak, dagozkien programen bitartez gauzatu direnak.

Por otro lado, el Departamento de Industria, Innovación, Comercio y Turismo tiene encomendadas funciones de "promoción y desarrollo de la Sociedad de la Información y del Conocimiento en la sociedad vasca, sin perjuicio de las actuaciones en materia de administración y gobierno electrónico" en virtud de lo establecido en el Decreto 20/2009, de 30 de julio, del Lehendakari, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma el País Vasco.

Esta encomienda se ha traducido en la elaboración y consiguiente gestión y coordinación del "Plan Euskadi en la Sociedad de la Información 2015: Agenda Digital Euskadi, un plan donde se recoge la actividad de todos los departamentos que conforman el Gobierno Vasco en materia de TICs y Sociedad de la Información. El plan ha sido elaborado en 2011 con la participación de todos los departamentos del gobierno así como agentes externos pertinentes.

El enfoque se fundamenta en los siguientes pilares básicos que, de manera interrelacionada, conforman la visión del plan:

- Sociedad competente, altamente participativa y corresponsable, usuaria de servicios digitales avanzados y de alto impacto.
- Sociedad que apuesta por la innovación y la sostenibilidad apoyada en las TIC como motores de crecimiento de la competitividad.
- Sociedad que utiliza las capacidades de las TIC para la mejora de la calidad de vida de las personas y el bienestar colectivo.
- Sociedad plenamente conectada, modelo de referencia en el ámbito de las infraestructuras y usos de la Sociedad de la Información.

El logro de esta visión requiere, por un lado, asegurar que el sistema se asiente en tres soportes que constituyen una garantía de buen funcionamiento:

- Impulsar la capacitación tecnológica, integración y accesibilidad social para todas las personas y organizaciones.
- Asegurar la disponibilidad e interoperatividad de unas infraestructuras de última generación, seguras, capaces, accesibles, asequibles y ultrarrápidas.
- Fomentar la confianza y seguridad digital.

El desarrollo de esta visión se articula en torno a cuatro ejes estratégicos estrechamente interrelacionados, que se apoyan mutuamente y a partir de los cuales se realizará el despliegue de las actuaciones necesarias, materializadas en los programas correspondientes.

- **HERRITAR AKTIBOAK SAREAN** (Erkidego digitala): Parte-hartze maila handikoa eta arduratsua, gaitua eta zerbitzu digital aurreratua erabiltzen ohitua. IKTen sozializazioa, iraunkortasunaren, bermearen eta e-inklusioaren aldeko apustua eginez.
- **ENPRESA, LEHIAKORRA ETA BERRITZAILEA** (e-Enpresa), berrikuntzaren eta iraunkortasunaren aldeko apustua egiten duten negozio-eredu berriekin, merkatu berrietan balio erantsi handiko produktuak eta zerbitzuak eskaintzeko xedez.
- **AZPIEGITURA** teknologikoak eta telekomunikaziokoak, azken belaunaldikoak, gaituak, eskalagarriak, ultrabizkorak, irisgarriak, erabiltzaileentzat seguruak eta iraunkorrak, Informazio Gizartearen garapenarekin lerrotatuak bermatzea eta horien eskaria sustatzea.
- **SAREAN ADMINISTRAZIO IREKIA**, berritzailea, gardena, irisgarria eta elkarroperatiboa izanik inaktu handiko zerbitzu digital aurreratua jarriko dituen.
- **CIUDADANÍA ACTIVA EN RED** (Comunidad digital): Participativa y responsable, competente y habituada a la utilización de servicios digitales avanzados. Socialización de las TIC, apostando por la sostenibilidad, y garantía de e-inclusión.
- **EMPRESA, COMPETITIVA E INNOVADORA** (e-Empresa), con nuevos modelos de negocio que apuestan por la innovación y la sostenibilidad para ofrecer productos y servicios avanzados de alto valor añadido en nuevos mercados.
- **Garantizar** unas **INFRAESTRUCTURAS** tecnológicas y de telecomunicaciones de última generación, capaces, escalables, ultrarrápidas, accesibles, seguras para los usuarios/as y sostenibles, alineadas con el desarrollo de la Sociedad de la Información, así como el fomento de la demanda.
- **ADMINISTRACIÓN ABIERTA EN RED**, innovadora, transparente, accesible, ínter operable y proveedora de servicios digitales avanzados de alto impacto y de elevado valor añadido.

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
<p>GAIKUNTZA ETA PRESTAKUNTZA DIGITALAK</p> <ul style="list-style-type: none"> • IKTen eta Interneten eremuan praktika egokien hedapenerako, prestakuntzarako eta sustapenerako ekintzak gauzatzea, enpresa eta administrazioetan lehiakortasuna hobetzeko tresna modura nahiz erabiltzaileentzat Informazioaren Gizarteko eragileak gaitasun digitala lortzea bideratutakoa. <ol style="list-style-type: none"> 1. Atari digitala (www.euskadinnova.net). 2. Praktika onak eta prestakuntza aurreratua hedatzea (enpresa +digital@). 3. Murgiltze digitala (barnetegi +digital@). <p>IKTak ETA INTERNET ENPRESA LEHIAKORTASUNERAKO TRESNA MODURA</p> <ul style="list-style-type: none"> • IKT tresnak sartzea eta euskal enpresa-sarea guztiz digitalizatzeko laguntzea, sare horretako prozesuen eraginkortasuna hobetzeko eta merkatu eta ekiteko modu berriak sustatzeko, azken horien lehiakortasun-maila hobetu dadin. Arreta berezia eman zaio enpresa txikiei eta enpresa txikiz osatutako sektoreei. <ol style="list-style-type: none"> 1. ETEetan IKT irtenbideen ezarpen berriak (hobeki/mejora +digital@). 	<p>260</p> <p>800</p>	<p>CAPACITACIÓN Y FORMACIÓN DIGITALES</p> <ul style="list-style-type: none"> • Realización de acciones de divulgación, formación y fomento de buenas prácticas en el ámbito TIC e Internet, tanto a nivel de empresas y administración, como herramienta para la mejora competitiva, así como para los y las usuarias encaminada a la capacitación digital de los y las actoras de la Sociedad de la Información. <ol style="list-style-type: none"> 1. Portal digital (www.euskadinnova.net). 2. Divulgación de buenas prácticas y formación avanzada (enpresa +digital@). 3. Inmersión digital (barnetegi +digital@). <p>LAS TICs E INTERNET COMO HERRAMIENTA DE COMPETITIVIDAD EMPRESARIAL</p> <ul style="list-style-type: none"> • Apoyo a la incorporación de herramientas TIC y digitalización plena del tejido empresarial vasco para la mejora de la eficiencia de sus procesos y promoción de nuevas mercados y formas de hacer, que redunden en una mejora competitiva de las mismas. Se presta especial atención a las empresas y sectores de empresas de menor tamaño. <ol style="list-style-type: none"> 1. Nuevas implantaciones de soluciones TIC en PYMES (hobeki/mejora +digital@).

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
<p>2. Elkarreentzat irtenbide berriak garatzea bazkideen aurrean preskribatzeko (elkarte/asociación +digital@).</p> <p>3. Mikroenpresen sektoreei zuzenduriko garapen espezifikokoak (mikroenpresa +digital@).</p> <p>4. IKT irtenbide aurreratuak garatzeko eta ezartzeko sustapen-ekintzak.</p> <p>5. IKTak euskal enpresetan txertatzeko prozesuan laguntza teknologiko neutrala emateko kontsulta-zerbitzua (“eKontsulta +digital@”).</p>	<p>75</p> <p>5</p> <p>4</p>	<p>2. Nuevos desarrollos de soluciones para asociaciones para su prescripción ante asociados (elkarte/asociación +digital@).</p> <p>3. Desarrollos específicos para sectores de microempresas (mikroenpresa +digital@).</p> <p>4. Acciones de impulso al desarrollo e implantación de soluciones TICs avanzadas.</p> <p>5. Servicio de consulta (“eKontsulta +digital@”) para el apoyo tecnológico neutral en el proceso de incorporación de las TICs en las empresas vascas.</p>
<p>IKTen ETA INTERNETEN EREMUAN I+G SUSTATZEA</p> <ul style="list-style-type: none"> • Informazioko Gizartearen munduan (IKTak eta Internet) I+Gren proiektuak gauzatzeko laguntza eta sustatzea, pertsonen ongizateari lotutako eremuetan eragin berezia izanez. <p>1. Produktu berrien garapen teknologikorako GAITEK programari laguntza.</p> <p>e-ADMINISTRATIOA</p> <ul style="list-style-type: none"> • Aurrerapen digitala e-Administrazioa. Sailaren barnean baimentze- edo sustapen-prozeduren tramitazio telematikorako proiektuak garatzen jarraitzea, herritarrak eta enpresak Administrazioaren leihatila birtualera hurbiltzeko. <p>1. Sistema kopurua.</p>	<p>20</p>	<p>FOMENTO DE LA I+D EN EL ÁMBITO TIC E INTERNET</p> <ul style="list-style-type: none"> • Apoyo e impulso a la realización de proyectos de I+D en el mundo de la Sociedad de la Información (TICs e Internet), con especial incidencia en los ámbitos ligados al bienestar de las personas. <p>1. Apoyo al programa de desarrollo tecnológico de nuevos productos GAITEK.</p> <p>e-ADMINISTRACIÓN</p> <ul style="list-style-type: none"> • Avance digital e-Administración. Continuar desarrollando dentro del Departamento proyectos de tramitación telemática de procedimientos de autorización o promoción que permitan acercar a la ciudadanía y a las empresas la ventanilla virtual de la Administración. <p>1. Número de sistemas.</p>
<p>ZEHARKAKO EKIMENAK</p> <ul style="list-style-type: none"> • Euskadi Informazioaren Gizartean 2015 Plana. <p>ERKIDEGO DIGITALA</p> <p>1. Gaitasun digitalak.</p> <p>2. Hezkuntza eta prestakuntza digital aurreratua.</p> <p>3. e-Partaidetza.</p> <p>4. Etxe digitala.</p> <p>5. Konfiantza digitala.</p> <p>e- ENPRESA</p> <p>6. IKTak enpresetan.</p>		<p>INICIATIVAS TRANSVERSALES</p> <ul style="list-style-type: none"> • Plan Euskadi en la Sociedad de la Información 2015. <p>COMUNIDAD DIGITAL</p> <p>1. Competencias digitales.</p> <p>2. Educación y formación digital avanzada.</p> <p>3. e-Participación.</p> <p>4. Hogar digital.</p> <p>5. Confianza digital.</p> <p>e-EMPRESA</p> <p>6. TIC en empresa.</p>

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
<p>7. Sareko negoziarako eredu berritzaileak.</p> <p>8. IKTen sektorearen lehiakortasuna garatzea. 9. IKTak eta iraunkortasuna.</p> <p>9. IKTak eta iraunkortasuna.</p> <p>10. IKTen bitarteko nazioartekotzea.</p> <p>ZERBITZU AURRERATUAK</p> <p>11. Administrazio bideratzailea, hurbilekoa eta efizientea.</p> <p>12. IKTetan oinarritutako gizarte- eta osasun-sistemak.</p> <p>13. Euskadi sarean.</p> <p>14. Tokiko agenda digitalak.</p> <p>AZPIEGITURAK</p> <p>15. Azpiegitura eta sare ultrabizkorak.</p> <p>16. Segurtasuna eta konfiantza sarean.</p> <p>17. Zerbitzuetarako mugikortasuna eta nonahiko sarbidea.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Etengabeko berrikuspena eta berrikuntza IKTen esparruko jardueretan, ekimen berrien eta informazioaren gizartearen trakzio-proiektuen bideragarritasuna aztertuz. 		<p>7. Modelos innovadores de negocio en red.</p> <p>8. Desarrollo de la competitividad del sector TIC.</p> <p>9. TICs y sostenibilidad.</p> <p>10. Internacionalización a través de las TIC.</p> <p>SERVICIOS AVANZADOS</p> <p>11. Administración facilitadora, cercana y eficiente.</p> <p>12. Sistemas socio-sanitarios basados en TICs.</p> <p>13. Euskadi en la red.</p> <p>14. Agendas digitales locales.</p> <p>INFRAESTRUCTURAS</p> <p>15. Infraestructuras y redes ultrarrápidas.</p> <p>16. Seguridad y confianza en la red.</p> <p>17. Movilidad y acceso ubicuo a los servicios.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Revisión e innovación permanente en las actuaciones en el ámbito de las TICs, analizando la viabilidad de nuevas iniciativas y de proyectos tractores de la sociedad de la información.

PROGRAMA	PROGRAMA
5413 TEKNOLOGIA	5413 TECNOLOGÍA
ARDURADUNA	RESPONSABLE
<u>07 INDUSTRIA, BERRIKUNTZA, MERKATARITZA ETA</u> <u>TURISMOA</u>	<u>07 INDUSTRIA, INNOVACIÓN, COMERCIO Y</u> <u>TURISMO</u>
TEKNOLOGIA ZUZENDARIA	DIRECTOR DE TECNOLOGÍA

MEMORIA

2015eko Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Planarekin (ZTBP'15), erronka bikoitza dugu aurrean. Alde batetik, eraginkortasuna hobetu behar dugu. Beti izan da helburua, baina gaur egungo ekonomia- eta aurrekontu-testuinguruan, guztiz beharrezkoa dela esan beharra dago. Bestetik, Euskadik azken hiru hamarkadetan I+G+B-an egindako inbertsio jarraituari balioa emateko erronka dugu.

Adierazitako lehen erronkari dagokionez, Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailak ez du gutxitu nahi izan industria-arloko I+Garen alde egindako apustuaren maila. Aitzitik, 2012an ahalegin handia egingo du Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sareko agenteen gaitasun zientifiko-teknologikoak hobetzeko laguntza-programen zein onuradun gisa euskal enpresak dituzten laguntza-programen zuzkidurari eusteko eta, ahal izan den kasuetan, areagotzeko. Bestalde, beste ahalegin handia egingo du Teknologia Zuzendaritzaren barneko kudeaketa-gastua nabarmen murrizteko (2. kapituluan). Neurri horiekin batera, onartutako proiektuen jarraipena egiteko sistema bat ezarriko da 2012an. Sistema horren bidez, onartutako proiektuak egikaritzean izandako ez-betetzeak, desbideratzeak edo irregularitasunak goiz ikusi ahal izango dira, eta, era horretan, proiektuak zuzendu edo geldiarazi, eta berrikuntzarako euskal sistemari baliorik ematen ez dioten gastuak eten ahal izango dira.

Con el nuevo Plan de Ciencia Tecnología e Innovación 2015, PCTI'15, nos enfrentamos a un doble reto. Por una parte, a la mejora de la eficacia, que si bien siempre ha sido un objetivo, en el contexto económico y presupuestario actual, la entendemos como algo absolutamente necesario. Por otra parte, el reto de la puesta en valor de la inversión sostenida en I+D+i, que el País Vasco ha realizado durante las tres últimas décadas.

En el primero de los retos citados, lejos de pretender minorar el nivel de apuesta por la I+D industrial, el Departamento de Industria, Innovación, Comercio y Turismo, realiza en 2012 un importante esfuerzo por mantener e incluso incrementar en aquellos casos donde ha sido posible, la dotación de los diferentes programas de ayudas, tanto los destinados a la mejora de capacidades científico-tecnológicas de los agentes de la Red Vasca de Ciencia Tecnología e Innovación, como aquellos en los que las beneficiarias son las empresas vascas. Por contra, en un nuevo esfuerzo, se recorta de manera considerable el gasto interno de gestión de la Dirección de Tecnología en el Capítulo 2. Junto a estas medidas, se incorporará a lo largo de 2012, un sistema de seguimiento de proyectos aprobados que permita la detección temprana de incumplimientos, desviaciones o irregularidades en la ejecución de proyectos aprobados, y de esta forma posibilite la corrección e incluso la paralización de los mismos, y de este modo detener los gastos que no aporten valor al sistema vasco de innovación.

Era berean, ZTBESeko agenteen finantzaketa-ereduak berrikusi egingo dira, eta, beharrezkotzat hartzen den kasuetan, baliabide gutxiago eskatuko dituzten funtsen jatorriari lotutako eredu berriak bilatuko dira Teknologia Zuzendaritzaren programen bitartez. Nolanahi ere, eredu horiek agenteen kudeaketa-organoekin adostuko dira, Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailak ezartzea bilatu gabe. Eta, dakigunez, gaur egun guztion ahalegina behar da beste administrazio batzuen itzulkin ekonomikoak maximizatzeko. Eta, funtsean, I+Gko Esparru Programarenak. Beraz, beharrezkoa da berrikuntzarako euskal sistemako agente bakoitzak European balioa hartzeko gai izatea eta arrakasta-ratioetan zein itzulkin ekonomikoetan hobetzea.

Halaber, ZTBP'15ean jasotzen denez, garrantzitsua da apustuak argi eta garbi finkatzea eta emaitza-ahalmenik handiena dutenei lehentasuna ematea. Alderdi hori bereziki garrantzitsua da ETORTEK eta ETORGAI programa estrategikoetan, industria-politikaren estrategiek isla nabarmena izango baitute programa horietan.

Bigarren erronkari dagokionez, eta Teknologia Zuzendaritzaren programetatik abiatuta, jardun bakoitzean balioa sortzeari emango diogu lehentasuna. Epe laburreko, ertaineko edo luzeko jardunak diren kontuan hartu gabe, ebaluazio-mekanismoek balioa (enplegua, enpresa-jarduera eta aberastasuna) sortzeari emango diote lehentasuna, eta ZTBP'15 berrian finkatutako estrategiei lotuta egongo dira argi eta garbi. Beraz, Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailak finantzatzeko I+G+B-ko jardun bakoitzean balioa sortzean aurreikusitako orientazioa eta eragina funtsezko irizpideak izango dira proiektuetarako deialdiak kontuan hartzen dituen Teknologia Zuzendaritzaren programa bakoitzean proposamenak ebaluatzeko eta hautatzeko mekanismo guztietan. Halaber, funtsezko elementuak izango dira 2012an ezarri beharreko proiektuen jarraipena egiteko arestian adierazitako mekanismoan.

2012. urtean Teknologia Zuzendaritzaren I+Gko programen egituran aldaketa handirik kontuan hartzen ez bada ere, programa bakoitzaren kudeaketa eta mekanismoak berrikusi nahi dira, eraginkorrak izan daitezten eta gure enpresa-sarean eragin handiagoa izan dezaten. Aterako ez den programa bakarra AZPIEGITUREN programa da. Programa horren inguruko deialdi pilotu bat atera nahi zen 2011. urtean, baina azkenean ez zen egin, aurreikusitakoaren arabera ezinezkoa baitzen 2012. urtean eta hurrengoetan behar bezala jarraitzea, aurrekontu-urritasunen ondorioz funtsean.

Dena dela, Enpresa Ekimen Berrien industrializaziorako programa berri bat ateratzea aurreikusi da. Programa horrek, laguntzen ohiko formula (itzuli beharrik gabeko diru-laguntzak) kontuan hartu ordez, kreditu itzulgarrien linea bat aterako du, azken urteotan egindako I+Gko proiektuetan oinarrituta sortutako enpresa berriak finantza daitezten.

Horretarako, Arrisku Kapitalak kudeatutako fondo bat eratuko da.

Igualmente, se revisarán los modelos de financiación de los agentes de la RVCTI, y en los casos en los que se estime necesario se buscaran nuevos modelos de origen de fondos que sean menos demandantes de recursos desde los programas de la Dirección de Tecnología. En cualquier caso, dichos modelos se acordarán con los órganos de gestión de los distintos agentes, sin buscar en ningún caso la imposición por parte del Departamento de Industria, Innovación, Comercio y Turismo, aunque bien es sabido que el momento actual requiere un esfuerzo general para maximizar los retornos económicos desde otras administraciones. Fundamentalmente desde el Programa Marco de I+D. Es necesario por lo tanto que cada agente del sistema vasco de innovación sea capaz de ponerse en valor en Europa y mejorar tanto en los ratios de éxito, como en sus niveles de retorno económico.

Igualmente, y tal y como recoge el PCTI'15, es importante que fijemos de manera clara las apuestas, y que prioricemos aquellas con mayor potencial de resultados. Este aspecto, tiene especial relevancia en los programas estratégicos ETORTEK y ETORGAI, en los cuales las estrategias de la política industrial tendrán un claro reflejo.

En el segundo de los retos, y desde cada uno de los programas de la Dirección de Tecnología vamos a priorizar la creación de valor en cada una de las actuaciones. Independientemente de que sean actuaciones a corto, medio o largo plazo, los mecanismos de evaluación van a primar la creación de valor en forma de empleo, actividad empresarial y riqueza, enlazándose de manera inequívoca con las estrategias marcadas en el nuevo PCTI'15. Por lo tanto, la orientación y el impacto previsto en la generación de valor de cada una de las actuaciones de I+D+i financiadas desde el Departamento de Industria, Innovación, Comercio y Turismo, se incorpora como criterio clave en todos los mecanismos de evaluación y selección de propuestas, en cada uno de los programas de la Dirección de Tecnología que contemplan convocatorias de proyectos, y se incluirá como elemento fundamental en el mecanismo de seguimiento de proyectos a implantar en 2012, al que anteriormente se ha hecho referencia.

De esta forma, en 2012, si bien no se contemplan grandes cambios en la estructura de programas de I+D de la Dirección de Tecnología, si se pretende revisar la gestión y los mecanismos de cada programa para hacerlos más eficaces y capaces de generar mayores impactos en nuestro tejido empresarial. Solamente se ha decidido no lanzar el programa de INFRAESTRUCTURAS, del cual se pretendía lanzar una convocatoria piloto en 2011, que finalmente no se llevó a cabo, ante la imposibilidad prevista de darle la adecuada continuidad en 2012 y siguientes, debido fundamentalmente a estrecheces presupuestarias.

Sin embargo, se tiene previsto lanzar un nuevo programa de Industrialización de nuevas iniciativas empresariales, que en lugar de contemplar la formula habitual de ayudas en forma de subvención a fondo perdido, lanzará una línea de créditos reintegrables, para financiar nuevas empresas que sean creadas sobre la base de proyectos de I+D precedentes, realizados en los últimos años.

Para ello, se creará un fondo que será gestionado por Capital Riesgo.

ETORGAI programan, bestalde, "proiektu estrategiko berezien" modalitatea txertatu da.

Horrekin guztiarekin, gaitasuna hobetzeko eta kualifikazio handiko enpleguari eusteko eraginkortasunez lagunduko duen dirulaguntza-sorta garrantzizko bat bideratu da, enpresen hazkuntzarako bide emango duena enplegu berria sortzea ahalbidetzen duten produktu eta zerbitzu berrien bitartez.

Arestian adierazitakoaz gain, eta 2011. urtean hasitako jardunei jarraiki, jardunari eta kudeaketari buruzko kapituluan honako alderdi hauetan oinarrituta egongo dira jardun nagusiak: ZTBESaren antolamendua eta gobernantza (ZTBESa arautzeko dekretu berria ezarriko da, ZTBESa berraktibatze eta hari balioa emateko 2011n landutako plana babesteko da eta haren jarraipena egingo da), Sailaren parte-hartzea I+Gko nazioarteko programetan (ERANET), eta, batez ere, parte-hartze aktiboa ZTBP 2015 berrian.

Horrela, programen ikuspegitik, 3 jardun-bloke antolatu dira:

1. ENPRESAKO I+G.

Indarrean dauden ENPRESAKO I+Gko programak abiaraztea jasotzen da:

- LEHIAKORTASUN PROIEKTUAK: Indibidualak edo Lankidetzakoak. GAITEK eta NET programak.
- PROIEKTU ESTRATEGIKOAK: Lankidetzakoak edo Bereziak. ETORGAI Programa.
- Enpresa-sarean TALENTU Zientifiko eta Teknologikoa TXERTATZEA. IKERTU Programa.

Proiektu ESTRATEGIKOETARAKO, gai espezifikoa proiektuak garatzeko proposamenen deialdi "itxia" jasotzen da Lankidetzan (estali beharreko gaien zerrenda, deialdi bakoitzarekin argitaratua); horrela, I+Gko ahaleginari dagokionez, lehentasunak Industria eta Teknologia Politikarantzko orientazio argia izango luke, eta gainera, ZTBP'15 ezarritako lehentasunetan oinarrituko litzateke.

Eta programa berria txertatzea:

- Enpresa Ekimen Berrien INDUSTRIALIZAZIOARAKO kredituak.

2. ZTBESko I+G.

Oraingoz, ZTBESko eragileentzat, espezializazioko eta emaitzetara orientatzeko programa guztiak mantenduko dira,

- SAIOTEK
- EMAITEK

industria-dibertsifikaziorako ikerketa estrategikokoak,

- ETORTEK

El programa ETORGAI, incorpora finalmente la modalidad de "proyectos estratégicos singulares".

Con todo ello, se configura un importante paquete de ayudas que contribuirá de forma eficaz a la mejora de la capacitación y al sostenimiento del empleo de alta cualificación, colaborando en el crecimiento de las empresas a través de nuevos productos y servicios que permitan crear nuevo empleo.

Además de lo anteriormente citado, y en continuidad con las actuaciones iniciadas en 2011, en el capítulo de Actuación y Gestión, las principales actuaciones se centrarán en la ordenación y gobernanza de la RVCTI, con la implantación del nuevo decreto de regulación de la misma, el apoyo y seguimiento al plan de reactivación y puestas en valor de la RVCTI elaborado en 2011, en la participación del Departamento en programas internacionales de I+D (ERANET), y sobre todo en la participación activa en el despliegue del nuevo PCTI 2015.

Así, desde el punto de vista de los programas, se instrumentan 3 grandes bloques de actuación:

1. I+D EMPRESARIAL.

Contempla el lanzamiento de los Programas de I+D EMPRESARIAL vigentes:

- PROYECTOS DE COMPETITIVIDAD: Individuales o En Cooperación. Programas GAITEK y NETs.
- PROYECTOS ESTRATÉGICOS: En Cooperación o Singulares. Programa ETORGAI.
- INCORPORACIÓN DEL TALENTO Científico – Tecnológico al tejido empresarial. Programa IKERTU.

Para los proyectos ESTRATÉGICOS en Cooperación se contempla la posibilidad de sacar una convocatoria "cerrada" de propuestas para desarrollar proyectos en temáticas específicas (listado de temáticas a cubrir, publicado con cada convocatoria) de manera que la prioridad del esfuerzo de I+D tenga una clara orientación a la Política Industrial y Tecnológica y se base en las prioridades establecidas en el PCTI'15.

Y la incorporación del nuevo programa:

- Créditos a la INDUSTRIALIZACIÓN de Nuevas Iniciativas Empresariales.

2. I+D DE LA RVCTI.

<p>2. ERAKUNDE PUBLIKOEN INTEGRAZIOARAKO ZEHARKAKO POLITIKAK HARTZEKO LAGUNTZA</p> <p>1.- Biltzen Integrazioaren eta Kulturartekotasunaren Zerbitzua mantentzea eta indartzea.</p> <p>1.- Eusko Jaurlaritzaren eta Aldundien sailekin nahiz Tokiko Erakundeekin lankidetzan jarduteko esparruak eta protokoloak.</p> <p>2.- Euskal administrazio publikoen zerbitzupeko langileak prestatzeko bide arruntei jarraiki, etorkinak integratzeari buruzko prestakuntza eta trebakuntza emateko oinarrizko eskaintza egitea.</p> <p>3.- Euskal administrazio publikoen zerbitzupeko langileak prestatzeko bide arruntei jarraiki, etorkinak integratzeari buruzko bigarren mailako eskaintza espezializatu bat egitea.</p> <p>4.- Erakunde publikoei laguntza eta oinarrizko aholkuak eman zaizkie honako gai hauei buruz: bizikidetzari, kultura arteko gatazkak konpontzeari, arrazakeriaren prebentzioari eta xenofobiari buruz</p> <p>2.- Udal arloarekiko lankidetzua.</p> <p>1.- Harrera eta integrazioaren aldeko lanerako jaurlaritzaren eta udalen arteko koordinazio tresna sendotzea.</p>	<p>6</p> <p>1</p> <p>1</p> <p>50</p> <p>1</p>	<p>2. APOYO PARA LA ADOPCIÓN DE POLÍTICAS TRANSVERSALES DE INTEGRACIÓN POR PARTE DE LAS ENTIDADES PÚBLICAS</p> <p>1.- Mantenimiento y fortalecimiento del Servicio de Integración y Convivencia Intercultural, "Biltzen".</p> <p>1.- Marcos y protocolos de colaboración con departamentos del Gobierno Vasco, de las Diputaciones y con Entidades Locales</p> <p>2.- Elaboración por los cauces normales de formación del personal al servicio de las administraciones públicas vascas una oferta básica de formación y capacitación sobre integración de personas inmigrantes.</p> <p>3.- Elaboración por los cauces normales de formación del personal al servicio de las administraciones públicas vascas una oferta de segundo nivel especializada sobre integración de personas inmigrantes.</p> <p>4.- Acompañamiento y ofrecimiento de asesoría básica a entidades públicas sobre cuestiones de convivencia, utilización de espacios públicos, resolución de conflictos interculturales, prevención del racismo y la xenofobia.</p> <p>2.- Colaboración con el ámbito municipal.</p> <p>1.- Fortalecimiento del mecanismo de coordinación entre gobierno y municipios para el trabajo por la acogida y la integración..</p>

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
<p>2.- Espazio publikoetako bizikidetasunari buruzko lankidetzeta-programa bat abiaraztea.</p> <p>3.- Kulturartekotasunaren esparruan udalen lanerako laguntza tekniko eta finantzarioa emateko bitartekoak ezartzea.</p> <p>3. ETORKINEI BEREN INKLUSIO-IBILBIDEETAN BABESA EMATEA</p> <p>1.- Administrazio-egoera irregularrean dauden edo egoera horretan egoteko arriskuan dauden etorkinei Arreta juridikoa emateko Zerbitzua.</p> <p>1.- Gizarte-erakundeekin eta Abokatuen Elkargoekin sinatutako hitzarmenekin jarraitzea (justiziaren bitartez).</p> <p>2.- Biltzeneko talde juridikoa indartzea, atzerritarren arloko aholkularitza, solaskidetzeta eta erreferentzia eskaintzeko lanean.</p> <p>3.- Atzerritarrei buruzko legediaren gaineko prestakuntza eta hedapena, beste baliabide batzuekin koordinatuz.</p> <p>4.- Atzerritarrei atzerritartasun-txostenak emateko lana geure gain hartzea.</p> <p>2.- Atzerritarrek gizartera daitezela lan egiten duten irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuak finantzatzeko politika ezartzea eta aplikatzea.</p> <p>1.- Etorkein gazteak emantzipatzeko ekimenei laguntzea.</p> <p>2.- Kanarietatik, Ceutatik eta Melillatik etorritako etorkinen arreta humanitarioko eta harrerako programaren jarraipena, gizarte-erakundeekin sinatutako hitzarmenen bitartez.</p> <p>3.- Hitzarmena EUDELekin, udalaren gizarte-zerbitzuetan itzulpen-zerbitzu bat jartzeko eta hedatzeko.</p> <p>1.- Esperientzia pilotuaren ebaluazioa.</p> <p>2.- Eskatu duten beste udalerrri batzuetara eta udalaren beste sail batzuetara hedatzea, gizarte-zerbitzuetatik haratago.</p> <p>4. LGTB PERTSONEI BABESA ETA LAGUNTZA EMATEA, ORIENTAZIOA, AHOULKULARITZA ETA INFORMAZIOA ESKAINIZ</p> <p>1.- LGBT Orientazioko eta Aholkularitzako Zerbitzua, Berdindu.</p>	<p>1</p> <p>1</p> <p>6</p> <p>1</p> <p>30</p> <p>2</p> <p>4</p> <p>1</p> <p>15</p>	<p>2.- Puesta en marcha del programa colaborativo sobre convivencia en espacios públicos.</p> <p>3.- Establecimiento de los medios de apoyo técnico y financiero para el trabajo municipal en el ámbito de la interculturalidad.</p> <p>3. APOYO A LAS PERSONAS INMIGRANTES EN SUS ITINERARIOS DE INCLUSIÓN SOCIAL</p> <p>1.- Servicio de Atención jurídica a las personas inmigrantes en situación administrativa irregular o en riesgo de incurrir en ella.</p> <p>1.- Mantenimiento de los convenios con las entidades sociales y los Colegios de Abogados (a través de justicia).</p> <p>2.- Fortalecimiento del equipo jurídico de Biltzen, en su labor de asesoría, interlocución y referencia en materia de extranjería.</p> <p>3.- Formación y difusión- en coordinación con otros dispositivos- sobre la legislación de extranjería.</p> <p>4.- Asunción de la emisión de informes de extranjería para personas extranjereras.</p> <p>2.- Establecimiento y aplicación de una política de financiación a entidades privadas sin ánimo de lucro que trabajan por la inclusión social de las personas inmigrantes.</p> <p>1.- Apoyo de iniciativas de emancipación para jóvenes inmigrantes.</p> <p>2.- Continuación del programa de atención humanitaria y acogida en la península de personas procedentes de Canarias, Ceuta y Melilla, a través del convenio con entidades sociales.</p> <p>3.- Convenio con EUDEL para la implantación y extensión de un servicio de traducción en los servicios sociales municipales.</p> <p>1.- Evaluación de la experiencia piloto.</p> <p>2.- Extensión a otros municipios demandantes y a otras áreas municipales más allá de los servicios sociales.</p> <p>4. APOYO Y ACOMPAÑAMIENTO A LAS PERSONAS LGTB, CON ORIENTACIÓN, ASESORÍA E INFORMACIÓN</p> <p>1.- Servicio de Orientación y Asesoría LGBT Berdindu.</p>

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
<p>1.- Berdinu zerbitzua emateko hitzarmenei eustea.</p> <p>2.- Zerbitzua ezagutaraztea komunikazio-kanpaina baten bidez.</p>	<p>3</p> <p>1</p>	<p>1.- Mantenimiento de los convenios para la prestación del servicio Berdinu.</p> <p>2.- Difusión de la existencia del servicio a través de una campaña de comunicación.</p>
<p>5. IMMIGRAZIO POLITIKAN KOORDINATU ETA PARTE HARTZEKO TRESNAK SENDOTZEA, BEREZIKI ETORKINEN ELKARTEEN ETA LGTB EN SAREAN</p>		<p>5. FORTALECIMIENTO DE LOS MECANISMOS DE COORDINACIÓN Y PARTICIPACIÓN EN LA POLÍTICA DE INMIGRACIÓN, ESPECIALMENTE DEL TEJIDO ASOCIATIVO DE PERSONAS INMIGRANTES Y DEL LGTB</p>
<p>1.- Etorkinak integratzeko eta gizartean parte hartzeko Foroa berriz planteatu eta berriz formulatzea.</p>		<p>1.- Replanteamiento y reformulación del Foro para la Integración y participación social de las personas inmigrantes.</p>
<p>1.- Osaerari eta funtzionamenduari buruzko araudia egokitu eta eguneratzea.</p>	<p>2</p>	<p>1.- Adecuación y actualización de la normativa de composición y funcionamiento.</p>
<p>2.- Foroa eta horren eginkizunak etorkin-elkarteetan hedatzea.</p>	<p>10</p>	<p>2.- Difusión de la existencia y funciones del foro entre las asociaciones de inmigrantes.</p>
<p>2.- Elkarateak indartzeko plana.</p>		<p>2.- Plan de fortalecimiento asociativo</p>
<p>1.- Elkarateak indartzeko plan bat diseinatu eta abian jartzea. Plan horretan parte hartzeko laguntza-ildoak biltzen dira, emakumeen elkarteetan ahalduntzea azpimarratuz bereziki.</p>	<p>1</p>	<p>1.- Diseño e implantación de un plan de fortalecimiento asociativo, que recoge las líneas de ayuda para la participación, con un subrayado especial en el empoderamiento de asociaciones de mujeres.</p>
<p>3.- Inmigrazioaren inguruko politiketarako sailen arteko batzordea ezartzea.</p>		<p>3.- Puesta en marcha de una comisión interdepartamental de políticas relacionadas con la inmigración.</p>
<p>4.- LGTB erakundeekiko lan-dinamika konpartituarri eustea.</p>		<p>4.- Continuación con la dinámica de trabajo compartida (reuniones) con las entidades LGTB.</p>
<p>6. IMMIGRAZIOAREN FENOMENOARI, KULTURA ARTEKO BIZIKIDETASUNARI ETA ANIZTASUN AFECTIVO-SEXUAL NAHI GENERO NORTASUNAREN ANIZTASUNARI BURUZKO PRESTAKUNTZA, INFORMAZIOA ETA SENTSIBILIZAZIOA</p>		<p>6. FORMACIÓN, INFORMACIÓN Y SENSIBILIZACIÓN SOBRE EL FENÓMENO DE LA INMIGRACIÓN, LA CONVIVENCIA INTERCULTURAL Y LA DIVERSIDAD AFECTIVO-SEXUAL Y DE IDENTIDAD DE GÉNERO</p>
<p>1.- IKUSPEGI, Inmigrazioaren Euskal Behatokiari eustea eta hura indartzea.</p>		<p>1.- Mantenimiento y fortalecimiento del Observatorio Vasco de la Inmigración, IKUSPEGI.</p>
<p>1.- Behatokiako EHUrekin sinatutako hitzarmena luzatzea.</p>	<p>1</p>	<p>1.- Prórroga del convenio con la UPV/EHU para el observatorio</p>
<p>2.- Ikerketak eta azterlanak ekoiztu eta argitaratzea.</p>	<p>4</p>	<p>2.- Producción y publicación de investigaciones y estudios</p>
<p>3.- Hedabide orokorretan eta espezializatueta hedatzea.</p>	<p>6</p>	<p>3.- Difusión en medios generales y especializados.</p>
<p>4.- Prestakuntza-eskaintza egin eta eskaintzea erakunde publiko eta pribatuentzat.</p>	<p>6</p>	<p>4.- Elaboración de una oferta formativa para entidades públicas y privadas.</p>
<p>2.- Prestakuntza-ekimenak irakaskuntza- eta gizarte-eremuetan.</p>		<p>2.- Iniciativas de formación en el ámbito académico y social.</p>

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
1.- Hitzarmena berritzea EHUko migrazio-masterrarekin.	1	1.- Renovación del convenio con el master de migraciones de la UPV/EHU..
2.- Komunikabideekin, euskal eskolako guraso-elkarteekin, beste irakaskuntza-erakunde batzuekin eta abarrekin hitzarmenak ezartzea, sentsibilizazio-programak egiteko.	4	2.- Establecimiento de convenios con medios de comunicación, asociaciones de padres y madres de la escuela vasca y otras instituciones académicas, etc. para la realización de programas de sensibilización.
3.- Zenbait agente sozialek sustatutako jardunaldiak, biltzarrak, mintegiak, azterlanak eta ikerketak antolatu eta finantzatzea.	10	3.- Organización y financiación de jornadas, congresos, seminarios, estudios e investigaciones promovidas por diferentes agentes sociales.
4.- Migrazioei buruzko Espainiako Kongresua egiten laguntzea.	1	4.- Apoyo a la celebración del Congreso Español de Migraciones.
5.- Jardunaldia, Emakunderen berdintasunerako foroaren esparruan.	1	5.- Jornada en el marco del foro para la igualdad de Emakunde.
3.- Sentsibilizazioko ekimenak LGTB eremuan.		3.- Iniciativas de sensibilización en ámbito LGTB.
1.- Sentsibilizazio-kanpainak egitea aniztasun afektibo-sexualari eta genero-nortasunaren aniztasunari buruz.	2	1.- Realización de campañas de sensibilización sobre la diversidad afectivo-sexual e identidad de género.
4.- Sentsibilizazioko ekimenak kultura artekotasunaren eta arrazakeriaren aurkako eremuan.		4.- Iniciativas de sensibilización en el ámbito de la interculturalidad y antirracismo.
1.- Hezkuntza formalean, "auzokide berriak" ekimena martxan jartzea.	1	1.- Puesta en marcha de la iniciativa "nuevos vecinos" en el ámbito de la educación formal.
2.- Immigrazioari buruzko aurreiritzi ohikoenak indargabetzeko lanari ekitea, sare-lanaren bitartez.	1	2.- Puesta en marcha del trabajo para contrarrestar los prejuicios más comunes sobre la inmigración, a través del trabajo en red.

PROGRAMA	PROGRAMA
3123 GIZARTE GAIAK	3123 SERVICIOS SOCIALES
ARDURADUNA	RESPONSABLE
<u>08 ENPLEGU ETA GIZARTE GAIAK</u>	<u>08 EMPLEO Y ASUNTOS SOCIALES</u>
GIZARTE ZERBITZUETAKO ZUZENDARIA ETA GIZARTE ZERBITZUEN GOI IKUSKARITZAKO ZUZENDARIA	DIRECTOR DE SERVICIOS SOCIALES Y DIRECTORA DE ALTA INSPECCIÓN DE SERVICIOS SOCIALES

MEMORIA

GIZARTE ZERBITZUETAKO ZUZENDARITZA

2012ko ekitaldia ere gako-urtea izango da Gizarte Zerbitzuen 12/2008 Legean zehaztutako Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema eratu eta sendotzeko lanean, baita 2016. urterako Legean ezarritako unibertsalizazio-helburua betetzeko baldintzen zehaztepean ere.

12/2008 Legea idatzi eta negoziatu zen uneko egoera ekonomikoa gaur egungoaren oso desberdina zen; izan ere, gaur egun, baldintza ekonomikoek behartu egiten gaitu politika publikoetan austeritatea, administrazioen jardunen eraginkortasuna eta aurrekontu publikoaren efizientzia handitzera. Gastu publikoan lehentasuna ematean lan hobea egitera eta jardun publikoen inpaktua ebaluatzeko sistemak handitzera behartzen gaitu horrek.

Gizarte Zerbitzuen Legeak Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren barruan Eusko Jaurlaritzari ematen dion zeregina hainbat zerbitzuren planifikazioan eta kudeaketan oinarritzen da: familia-bitartekotza, telelaguntza, eta haurrentzako eta genero-indarkeriaren biktimak diren emakumeentzako informazio-zerbitzuak (azken bi horiek Familia eta Komunitate Politikarako Zuzendaritzak eta genero-indarkeriaren biktimak diren emakumeei Laguntzeko Zuzendaritzak kudeatzen dituzte, hurrenez hurren).

DIRECCIÓN DE SERVICIOS SOCIALES

El ejercicio 2012 será también un año crucial en la tarea de construcción y consolidación del Sistema Vasco de Servicios Sociales definido en la Ley 12/2008 de Servicios Sociales y en la determinación de las condiciones que posibiliten el cumplimiento del objetivo de universalización marcado en la Ley para el año 2016.

La coyuntura económica en la que se desarrolló la redacción y negociación de la Ley 12/2008, era muy diferente de la actual, en la que las condiciones económicas obligan a incrementar la austeridad en las políticas públicas, la eficacia de las actuaciones de las administraciones y la eficiencia del presupuesto público. Ello nos obliga a efectuar una mejor labor de priorización del gasto público y a incrementar los sistemas de evaluación del impacto de las actuaciones públicas.

El papel que la Ley de Servicios Sociales otorga al Gobierno Vasco en el Sistema Vasco de Servicios Sociales, se centra en el desarrollo normativo, la función de planificación y la gestión de determinados servicios, como son la mediación familiar, la teleasistencia y los servicios de información a la infancia y a las mujeres víctimas de violencia de género (estos dos últimos gestionados por la Dirección de Política Familiar y Comunitaria y la Dirección de Atención a las mujeres víctimas de violencia de género, respectivamente).

Horren ildotik, 2012ko ekitaldian garatu nahi diren jardunen helburua da lurralde osoan Sistema egituratu eta homogeen bat ezartzea, informazio-sistema martxan jarriz edo Euskal herritar guztiei gizarte-zerbitzuetarako sarreran segurtasun juridikoa eta berdintasuna ahalbidetuko dien araubide bat eginez, eta horren kudeaketan inplikaturiko eragileekin sareko lan bat garatuta: administrazio eskudunak, Gizarte Ekimeneko erakundeak eta Sistemaren erabiltzaileak.

Aurreko ekitaldietan zehaztu eta adostutako zerbitzuen eta prestazioen zorroa garatzea izango da Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzak 2012. urtean lortu beharko dituen helburuetako bat, plangintza estrategikoaren arabera, eta gizarte zerbitzuen Plan estrategikoan zehaztutako helburuen jarraipenaren bitartez. Horretarako, funtsezkoa da Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren gobernu-organo gisa eraturako Gizarte Zerbitzuen Erakundearen arteko Organoa dinamizatzea.

Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema sendotzeko beste babes-sistema batzuekin harremana egituratu behar da, eta horretarako eraturiko da Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontseilua, Osasun Sistemarekin koordinatzeko organo gisa. Kontseiluak zainduko du pertsonak euren ohiko bizilekuan mantentzeko lehentasuna eman diezaiokkeen arreta-eredu bat sendotzearen aldeko apustua egiten duten erkidegoko jardun soziosanitarioen gidatzea. Gizarte Zerbitzuen Sistemaren telelaguntzako zerbitzua garatuko dugu hurbileko zerbitzu gisa eta osasun-arloan garatutako etxez etxeko arreta-sistemarekin koordinatzeko gaitasun handia duen zerbitzu gisa. Beren autonomia mugatua duten pertsonen etxebizitzetan jarduten duten zerbitzuekin koordinatuta jarduteko honako zerbitzu hauetariko bakoitzaren eraginkortasuna eta efizientzia handitu behar da: telelaguntza, etxez etxeko osasun-arreta, etxez etxeko arreta-zerbitzua.

Gizarte- eta hezkuntza-eremuari dagokionez, erakundearen arteko koordinazioa sustatzen ari da gizarte-zerbitzuen sistemaren eta hezkuntza-sistemaren artean, babes-sistemetan dauden adingabeen premiei erantzuteko, gizarte-babesik gabeko haur eta nerabeentzako harrera-egoitzako baliabideak arautzen dituen uztailaren 8ko 131/2008 dekretuan ezarritakoan oinarrituz onartutako koordinazio-protokoloak garatuta.

Diru-sarrerak bermatzeko prestazio ekonomikoaren kudeaketa enplegu-zerbitzura lekualdatzeko Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak hasitako operazioa amaitzeko aukera paregabea eman dio Gizarte Zerbitzuen Sistemak bere ahaleginak pertsona guztien autonomia funtzionala eta harreman- edo komunitate-integrazioa babestu eta sustatzeko eginkizunera bidera ditzan.

En esta línea las actuaciones que se propone desarrollar en el ejercicio 2012 persiguen consolidar un Sistema estructurado y homogéneo en todo el territorio, a través de la implantación del sistema de información o de elaboración de normativa, que posibilite seguridad jurídica e igualdad en el acceso a los servicios sociales a toda la Ciudadanía Vasca, desarrollando un trabajo en red con los agentes implicados en su gestión: administraciones competentes, entidades de Iniciativa Social y las personas usuarias del Sistema.

El desarrollo de la cartera de servicios y prestaciones, definida y consensuada en los ejercicios anteriores, será uno de los objetivos que la Dirección de Servicios Sociales deberá de alcanzar durante el año 2012, de acuerdo con la planificación estratégica y a través del seguimiento de los objetivos marcados en el Plan Estratégico de Servicios Sociales. Para ello es fundamental la dinamización del Órgano Interinstitucional de Servicios Sociales, constituido como órgano de gobierno del Sistema Vasco de Servicios Sociales.

La consolidación del Sistema Vasco de Servicios Sociales, supone la estructuración de la relación con los otros sistemas de protección, para ello se constituirá el Consejo Vasco de Atención Socio Sanitaria, como órgano de coordinación con el Sistema de Salud, que abordará el pilotaje de las actuaciones de carácter socio-sanitario a nivel autonómico, que apuesten por la consolidación de un modelo de atención capaz de otorgar prioridad al mantenimiento de las personas en su entorno de vida habitual. Desde el Sistema de Servicios Sociales, desarrollaremos el servicio de la teleasistencia como un servicio de proximidad y con un importante potencial de coordinación con el sistema de atención en el domicilio desarrollado desde el ámbito sanitario. La actuación coordinada de los diferentes servicios que inciden en los domicilios de las personas con limitación de su autonomía, supone incrementar la eficacia y la eficiencia de cada uno de estos servicios: teleasistencia, atención sanitaria en domicilio, servicio de atención domiciliaria.

En lo referente al ámbito socioeducativo, se promueve la coordinación interinstitucional entre el sistema de servicios sociales y el sistema de educación, para dar respuesta a las necesidades de los menores que se encuentran en los sistemas de protección, a través del desarrollo de los protocolos de coordinación aprobados el pasado año en base a lo establecido en el decreto 131/2008, de 8 de julio, regulador de los recursos de acogimiento residencial para la infancia y la adolescencia en situación de desprotección social.

Tras culminar la operación emprendida por el Departamento de Empleo y Asuntos Sociales, en el sentido de trasladar la gestión de las prestaciones económicas de garantía de ingresos hacia el sistema de empleo, surge la oportunidad para que el Sistema de Servicios Sociales concentre sus esfuerzos en su función específica de protección y promoción de la autonomía funcional e integración relacional o comunitaria de todas las personas.

Horrek aukera ematen du hurbileko gizarte-zerbitzuen ahaleginean aurrera egiteko, gizarte-zerbitzuen Zuzendaritzaren laguntza teknikoaren bitartez, sisteman parte hartzen duten eragile guztien lana erraztuko duten tresnak garatuta; besteak beste, babesgabetasun-, bazterkeria- eta mendetasun-egoerak baloratzeko tresnak.

Gainerako prestazio ekonomikoekin batera, Gizarte Larrialdietarako Laguntzak (GLL) ezinbesteko lehen pausoa dira pertsona eta talde guztiak gure gizartean integratzea lortzeko. Programa horren bitartez, Gizarte Zerbitzuetako Zuzendaritzak udalerrien kudeaketa babesten du familiek beren oinarritzko premiei aurre egin ahal izateko gutxieneko segurtasun ekonomikoa lortzeari dagokionez, gizarteratzeko eta laneratzeko lehenengo urrats gisa.

Era berean, Gizarte Zerbitzuen Informazio Sistema garatzen jarraituko dute, urte anitzeko jarduna eskatuko duen lan baten barruan, bai horren konplexutasun teknikoagatik, bai duen kostu ekonomikoagatik, eta sistemaren interoperabilitatea izango da helburu nagusia; eta mendetasuneko arrisku-egoeren eta bazterkeriako arrisku-egoeren diagnostiko-tresnak garatuko dira. Egoera horrek sistemarako sarreran herritarren berdintasuna bermatuko duen diagnostiko-sistema komun bat sendotzea ekarriko du.

Gizarte Ekimena indartzea izango da Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzaren funtsezko beste jardun-ardatzetako bat, betiere Legean bildutako partaidetza-organoen bitartez. 2012ko ekitaldian, Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseiluaren, Adinduen Kontseiluaren, Hautzaro Kontseiluaren, Ijito Herriaren Partaidetza Kontseiluaren eta Bitartekotza Kontseiluaren dinamizazioarekin jarraituko da.

Gizarte Zerbitzuen 12/2008 Legeaz gain, Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzarentzako erreferentziako arau-esparrua osatzen dute Mendetasun Egoeran daudenen Autonomia Pertsonala eta Arreta Sustatzeari buruzko Legeak, Familia Bitartekotzari buruzko Legeak, eta Adopzioari buruzko Legeak.

Zuzendaritzaren jardunaren oinarria osatzen duten giltzarri prozesuak ondokoak dira:

- 1.- Gizarte Zerbitzuen araudia lantzea eta garatzea.
- 2.- Zuzeneko Ekintzakotzat jotzen diren zerbitzuen kudeaketa.
- 3.- Erakunde-harremanak Gizarte Zerbitzuen Sistema osatzen duten Erakunde eta Entitateekin.

1.- Gizarte Zerbitzuen araudia lantzea eta garatzea.

2012ko ekitaldian, erreferentziako legeen ondoriozko arautze lanarekin jarraituko da adostutako erabakiei jarraiki. Horrela egin eta onartuko dira honako garapen-dekretu hauek:

Ello permite avanzar en el refuerzo de los servicios sociales de proximidad, colaborando a ello desde la Dirección de Servicios Sociales con el desarrollo de herramientas, como los instrumentos de valoración de las situaciones de desprotección, exclusión y dependencia, que faciliten la labor de todos los agentes implicados en el sistema.

Junto al resto de prestaciones económicas, las Ayudas de Emergencia Social (AES) constituyen un primer paso imprescindible para lograr la integración de todas las personas y grupos en nuestra sociedad. Con este programa la Dirección de Servicios Sociales apoya la gestión de los municipios en conseguir un mínimo de seguridad económica con el que las familias puedan afrontar sus necesidades más básicas de manera que sirva de primer peldaño para lograr su integración social y laboral.

Se continuará, así mismo, con el desarrollo del Sistema de Información de Servicios Sociales, en una labor que exigirá una actuación de carácter plurianual, tanto por su complejidad técnica como por su coste económico buscando fundamentalmente la interoperabilidad del sistema; y se desarrollarán instrumentos de diagnóstico de las situaciones de riesgo de dependencia y de riesgo de exclusión. Esta situación va a suponer la consolidación de un sistema de diagnóstico común, que garantice la igualdad de la ciudadanía en su acceso al sistema.

Fortalecer la Iniciativa Social, será otro de los ejes de actuación fundamental de la Dirección de Servicios Sociales, a través de los órganos de participación contemplados en la Ley. Durante el ejercicio 2012 se continuará con la dinamización del Consejo Vasco de Servicios Sociales, el Consejo de Mayores, el Consejo de Infancia, el Consejo de Participación del Pueblo Gitano y el Consejo de la Mediación.

El marco normativo de referencia para la Dirección de Servicios Sociales, lo constituye, además de la Ley 12/2008 de Servicios Sociales, la Ley de Promoción de la Autonomía Personal y Atención a Personas en Situación de Dependencia, la Ley de Mediación Familiar y la Ley de Adopción.

Los tres procesos clave que constituyen la base de actuación de la Dirección son los siguientes:

- 1.- Elaboración y desarrollo de la normativa de Servicios Sociales.
- 2.- Gestión de los servicios determinados como de Acción Directa.
- 3.- Relaciones Institucionales con las Organizaciones y Entidades que forman parte del Sistema de los Servicios Sociales.

1.- Elaboración y desarrollo de la normativa de Servicios Sociales.

Durante el ejercicio 2012 se continuará la labor normativa que se deriva de las leyes de referencia en base a los consensos. Así se procederá a la elaboración y aprobación de siguientes decretos de desarrollo:

Gizarte Zerbitzuen Informazio Sistema arautzen duen dekretua.

Decreto regulador del Sistema de Información de Servicios Sociales.

Etkez etxeko Laguntzako Zerbitzua arautzen duen dekretua.

Decreto regulador del Servicio de Ayuda a Domicilio.

Informazio, baliospen, diagnostiko eta orientazioko zerbitzua arautzen duen dekretua.

Decreto regulador del servicio de información, valoración, diagnóstico y orientación.

Gaueko harrera-zentroak arautzen dituen dekretua.

Decreto regulador de los centros de acogida nocturna.

Ezinduentzako egoitza-zentroak arautzen dituen dekretua.

Decreto regulador de centros residenciales para personas con discapacidad.

Bazterkeriako eta marjinazioko egoeran daudenentzako egoitza-zentroak arautzen dituen dekretua.

Decreto regulador de centros residenciales para personas en situación de exclusión y marginación.

Bazterkeria-maila zehazteko tresnak arautzen dituen dekretua.

Decreto regulador de instrumentos para la determinación del grado de exclusión.

Ahuleziako eta mendetasun-arriskuko egoerak zehazteko tresnak arautzen dituen dekretua.

Decreto regulador de instrumentos para la determinación de las situaciones de fragilidad y riesgo de dependencia.

Mendetasun-egoeran dauden autonomia pertsonala eta arreta sustatzeari buruzko Legean aurreikusitako zerbitzuen eta prestazioen bateragarritasuna arautzen duen Dekretua.

Decreto regulador de compatibilidad de los servicios y prestaciones previstos en la Ley de Promoción de la Autonomía Personal y Atención a las Personas en Situación de Dependencia.

114/2008 Dekretua aldatzen duen Dekretua, adopzioari buruzko estatuko Legea egoitzeko.

Decreto de modificación del Decreto 114/2008, para su adaptación a la Ley estatal de Adopción.

Gizarte Zerbitzuen Sistemaren egitura eta administrazio-maila desberdinen arteko eskumen-banaketa kontuan izanik, arau-garapen prozesu hori guztia erakundeen arteko laguntza eta lankidetzara oinarritzat hartuz egingo da, eta Gizarte Ekimenaren iritzia kontuan hartuko da.

Considerando la estructura del Sistema de los Servicios Sociales y el reparto competencial entre los diferentes niveles administrativos, todo este proceso de desarrollo normativo se realizará en el marco de la cooperación y colaboración interinstitucional y considerando la opinión de la Iniciativa Social.

2.- Zuzeneko Ekintzakotzat jotzen diren zerbitzuen kudeaketa.

2.- Gestión de los servicios determinados como de Acción Directa.

Telelaguntzako eta familia-bitartekaritzako zerbitzuen garapena, mantentzea eta sendotzea, Gasteizko Udalak aurretiaz kudeatutako zerbitzuarekin batera, Herrialde osorako sistema homogeen bat proposatzen dutenak, 2012an garatu beharreko ekintzak dira.

El desarrollo, mantenimiento y consolidación de los servicios de teleasistencia y de mediación familiar, incorporando el gestionado anteriormente por el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz, que plantean un sistema homogéneo para todo el País, constituyen acciones a desarrollar durante 2012.

Eremu horretako jardunak dira honako hauek:

Las actuaciones correspondientes a este ámbito son las siguientes:

- Adinduekiko tratua txarren aurkako plan estrategikoa.

- Plan estratégico contra los malos tratos a las personas mayores

- Euskadin adinduak sustatzeko plan estrategikoa.

- Plan estratégico de promoción de las personas mayores en Euskadi.

- Gizarte-zerbitzuen Plan estrategikoaren aplikazioari buruzko etengabeko ebaluazio-sistema bat egitea.

- Elaboración de un sistema de evaluación continua sobre la aplicación del Plan estratégico de servicios sociales.

- Gizarte-babesik gabeko haur eta nerabeentzako harrera-egoitzako baliabideak arautzen dituen uztailaren 8ko 131/2008 dekretuan ezarritako koordinazio-protokoloak egitea.

- Familia Bitartekotzako hiru Zerbitzuen koordinazioa eta jarraipena.

- Bost Familia Elkarguneen koordinazioa eta jarraipena.

- Informazio Sistema martxan jartzea eta jarraipena egitea.

- Nazioarteko adopzioarako erakunde laguntzaile berri ziurtatuen egiaztatze sistema berria martxan jartzea.

- Udalek eskatutako ezinduentzako aparkatzeko txartelen kudeaketa, faltsutzea eragozteko formatu berri batekin.

- Gizarte Zerbitzuetako profesionalentzako prestakuntza-ekintzak diseinatu eta koordinatzea.

- Profesionalak ez diren zainzaileentzako prestakuntza-ekintzen koordinazioa, Hobetuz erakundearen lankidetzarekin.

- Adoptatzen duten aita-amentzako prestakuntza-ekitaldi bat antolatzea.

- Koordinazio-programa esperimentalak diseinatu eta koordinatzea lehen mailako, gizarte- eta osasun-arretako sistemen artean.

- Zeinuen hizkuntza interpretatzeko on line sistema bat diseinatzea.

- Sailak Areto Nagusian adinduentzat duen stand-a kudeatzea.

12/2008 Legearen aplikaziotik eratorritzen den Gizarte Zerbitzuen sistemaren antolamendu-prozesua kontuan izanik, eta efizientzia-irizpideei jarraiki, zuzeneko ekintzako prozesu guztiak EAEko Gizarte Zerbitzuen alorrean eskumena duten administrazio-maila desberdinekin lankidetzara estuan egin beharko dira.

3.- Erakunde-harremanak Gizarte Zerbitzuen Sistema osatzen duten Erakunde eta Entitateekin.

Ekitaldi horretan Gizarte Zerbitzuen Informazio Sistemaren garapenarekin jarraituko da, iaz hasitako lanetik abiatuta, egoeraren diagnostikoarekin lotutako prototipoa zehazteko, eredia zehazteko eta jardun-proiektuak ezartzeko, bereziki, sistemaren interoperabilitatearekin lotuta.

- Elaboración de los protocolos de coordinación establecidos en el decreto 131/2008, de 8 de julio, regulador de los recursos de acogimiento residencial para la infancia y la adolescencia en situación de desprotección social.

- Coordinación y seguimiento de los tres Servicios de Mediación Familiar.

- Coordinación y seguimiento de los cinco Puntos de Encuentro Familiar.

- Puesta en marcha y seguimiento Sistema de información.

- Puesta en marcha del nuevo sistema de acreditación de las entidades colaboradoras de adopción internacional nuevas acreditadas.

- Gestión de las tarjetas de estacionamiento para personas con discapacidad, con un nuevo formato para impedir su falsificación, solicitadas por los Ayuntamientos.

- Diseño y coordinación de acciones de formación para los profesionales de los Servicios Sociales.

- Coordinación de las acciones de formación para cuidadores no profesionales en colaboración con Hobetuz.

- Organización de un evento de formación para padres y madres adoptantes.

- Diseño y coordinación de programas experimentales de coordinación entre los sistemas de atención primaria, social y sanitaria.

- Diseño de un sistema de interpretación on line de lenguaje de signos.

- Gestión del stand del Departamento en el Salón Nagusi, para personas mayores.

Considerando el proceso de ordenación del sistema de Servicios Sociales que se deriva de la aplicación de la Ley 12/2008, y atendiendo a criterios de eficiencia, todos los procesos derivados de la acción directa deberán de ser realizados en estrecha colaboración con los diferentes niveles administrativos de la CAPV, competentes en materia de Servicios Sociales.

3.- Relaciones Institucionales con las Organizaciones y Entidades que forman parte del Sistema de los Servicios Sociales.

Durante este ejercicio se continuará con el desarrollo del Sistema de Información de los Servicios Sociales, a partir del trabajo iniciado el año anterior para definir el prototipo en relación con el diagnóstico de situación, la definición del modelo y el establecimiento de proyectos de actuación, en particular, en relación con la interoperabilidad del sistema.

Honako hauek izango dira jardun-eremu horretako zeregin nagusiak: hirugarren sektorerako diru-laguntzen aginduaren kudeaketa, eta sailak finantzaturiko jardunen inpaktua balioesteko aukera ematen duten ebaluazio-tresnak egitea. Era berean, agindu horren administrazio-izapidea hobetzen saiatuko dira, eta, horretarako, administrazio elektronikoko irizpideak ezarriko dira, e-administrazioko zuzentzarauen ildotik, eta administrazioaren modernizazioaz arduratutako Jaurlaritzako zerbitzu nagusiekin koordinatuta.

Prozesu horretan aurreikusitako jardunak honako hauek dira:

- Gizarte Zerbitzuen Informazio Sistema garatzea.
- Adinduekiko tratu txarraren aurkako gizarte-sentsibilizazioko publizitate-kanpainak diseinatu eta koordinatzea.
- Gizarteratuz Gizarte Zerbitzuen aldizkako argitalpenen koordinazioa.
- Sektoreari buruzko jakintzako argitalpenen koordinazioa.
- Hirugarren sektoreko Erakundeek sustatutako esku-hartze sozialeko proiektuen balioespena, eta Sailaren diru-laguntzako aginduaren kudeaketa.
- Esku-hartze sozialeko proiektuen ebaluazio eta auditoriarako tresnak aplikatzea.
- Zuzendaritzak diruz lagundutako hirugarren sektoreko Erakundeek sustatutako esku-hartze sozialeko proiektuen gaineko ebaluazio-auditoriak egitea.
- Tokiko Erakundeei laguntzeko aukera emango duen legezko araua egitea, 12/2008 Legeari egokitzeko.
- Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseiluaren kudeaketa eta dinamizazioa.
- Haurtzaroaren eta Adinduen batzorde sektorialen kudeaketa eta dinamizazioa.
- Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzari atxikitako ongintza-eta sorospen-fundazioak dinamizatzea
- Ijito Herriaren Erabateko Sustapenerako eta Gizarte Partaidetzarako Kontseiluaren kudeaketa eta dinamizazioa.
- Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontseiluaren kudeaketa eta dinamizazioa.
- Erakundeen arteko Organoaren kudeaketa eta dinamizazioa.
- Gizarte Zerbitzuen Euskal Behatokiaren koordinazioa.

La gestión de la orden de subvenciones al tercer sector y la elaboración de instrumentos de evaluación que permitan realizar una valoración del impacto de las actuaciones financiadas por el departamento, será una de las principales tareas en este ámbito de actuación. Así mismo se procurará avanzar en la mejora de la tramitación administrativa de esta orden, incorporando criterios de administración electrónica, en línea con las directivas de e-administración y en coordinación con los servicios generales del Gobierno encargados de la modernización administrativa.

Las actuaciones previstas enmarcadas en este proceso son las siguientes:

- Desarrollo del Sistema de Información de los Servicios Sociales.
- Diseño y coordinación de campañas publicitarias de sensibilización social, contra el maltrato a personas mayores.
- Coordinación de las Publicaciones periódicas de Servicios Sociales, Gizarteratuz.
- Coordinación de las publicaciones de conocimiento sectorial.
- Valoración de los proyectos de intervención social promovidos por las Entidades del tercer sector, y gestión de la orden de subvención del Departamento.
- Aplicación de un instrumento de evaluación y auditoría de proyectos de intervención social.
- Realización de auditorías de evaluación a proyectos de intervención social promovidos por las Entidades del tercer sector subvencionados por la Dirección.
- Elaboración de la norma legal que posibilite el apoyo a las Entidades Locales, para su adecuación a la Ley 12/2008.
- Gestión y dinamización del Consejo Vasco de Servicios Sociales.
- Gestión y dinamización de las Comisiones sectoriales de Infancia y de Personas Mayores.
- Dinamizar las Fundaciones benéfico asistenciales, adscritas a la Dirección de Servicios Sociales.
- Gestión y dinamización del Consejo para la Promoción Integral y Participación Social del Pueblo Gitano.
- Gestión y dinamización del Consejo Vasco de Atención sociosanitaria.
- Gestión y dinamización del Órgano Interinstitucional.
- Coordinación del Observatorio Vasco de Servicios Sociales.

Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoan dauden eta Gizarte Zerbitzuen Erakunde arteko Organoak eta Gizarte Zerbitzuetako Euskal Kontseiluak onartu dituztelarik, 2012. urtean gauzatu nahi diren helburu eta ekintza zehatzak aipatzen dira.

Jardun guztiak EAEko erakunde-sarearekin eta Gizarte Ekimeneko Erakundeekin koordinatuta egingo dira, horren inguruan ahalik eta adostasunik handiena lortzen ahaleginduz.

GIZARTE ZERBITZUEN GOI IKUSKARITZAKO ZUZENDARITZA

2011. urtean, Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 Legean eta, zehazki, Gizarte Zerbitzuen arloko Goi Ikuskaritzaren irailaren 14ko 238/2010 Dekretuan adierazitako Gizarte Zerbitzuen arloko Goi Ikuskaritzako Zuzendaritzaren jarduerak hasi dira.

2011n Zuzendaritza hori abian jartzearekin batera, Gizarte Zerbitzuei buruzko Legeko zenbait elementu erabakigarri garatu dira, zehazki, zerbitzu eta prestazioen karteraren definizioa eta adostasun progresiboa, plan estrategikoa eta gizarte-zerbitzuen mapa, plan estrategikoaren onarpena edota zerbitzuen birbanaketa administrazioen –tokikoen, foralen eta autonomikoen– artean. Hori guztia lagungarria izan da 2016. urterako Legean ezarritako unibertsalizazio-helburua betetzea ahalbidetuko duten baldintzak zehazteko.

2011ko urtarrilaren 1etik aurrera, I. graduako 2. mailako gisa balioetsitako mendeko pertsonak autonomiarako eta mendetasunaren arretarako sisteman sartuko dira, Mendekotasun Egoeran dauden Pertsonen Autonomia Sustatzeko eta Horientzako Arreta Arautzeko abenduaren 14ko 39/2006 Legea betez, eta aipatutako Legearen garapenean aurrera egitea ekarriko du horrek; adierazitako Legea 2013ko urtarrilaren 1ean gailenera iritsiko dela aurreikusten da, I. graduako 2. mailako gisa balioetsitako mendeko pertsonak sisteman sartzearekin batera.

Lehen aipatutako bi legeei dagokienez, gizarte-zerbitzuen sistemaren ordenamendu juridikoaren oinarriak ezartzen dituzte, eta horretaz gain, sistema horren barruko prestazio eta zerbitzuetarako sarbidea izateko eskubide subjektiboa aitortzen dute biek. Haren garapena eta betearazpena zaintzea Goi Ikuskaritzako Zuzendaritzaren egiteko nagusia izango da.

Horren ildotik, 2011ko ekitaldian garatu diren jardunen helburua Goiz Ikuskaritzako Zuzendaritzaren jardun-oinarriak sortzea izan da, Erakunde guztiek aitortzen duten organo gisa, gizarte-zerbitzuen sistema garatzeari dagokionez erantzukizuna duena, lurralde osoan sistema egituratu eta homogeen bat ezartzea ez ezik, euskal herritar guztiei gizarte-zerbitzuetarako sarbidean segurtasun juridikoa eta berdintasuna ahalbidetuko diona, hain zuzen ere.

Se indican los objetivos y las acciones concretas que, incluidas en el Plan Estratégico de Servicios Sociales y aprobadas en el Órgano Interinstitucional y el Consejo Vasco de Servicios Sociales, se pretende realizar el año 2012.

Todas estas actuaciones se llevarán a cabo, en coordinación con el entramado Institucional de la CAPV y con las Organizaciones de la Iniciativa Social, procurando concitar el mayor consenso posible a su alrededor.

DIRECCIÓN DE ALTA INSPECCIÓN DE SERVICIOS SOCIALES

En 2011 se inician las actividades de la Dirección de la Alta Inspección de Servicios Sociales definida en la Ley 12/2008 de Servicios Sociales, y concretamente con el Decreto 238/2010, de 14 de septiembre, de la Alta Inspección en materia de Servicios Sociales.

La puesta en marcha de esta Dirección durante el año 2011 ha coincidido con el desarrollo de algunos de los elementos claves de la Ley de Servicios Sociales, como son la definición y progresivo acuerdo para el desarrollo de la cartera de servicios y prestaciones, el mapa de los servicios sociales, la aprobación del plan estratégico o la redistribución competencial de los servicios entre las administraciones local, foral y autonómica. Todo ello ha ayudado a determinar las condiciones que posibiliten el cumplimiento del objetivo de universalización marcado en la Ley para el año 2016.

En 2011, las personas dependientes valoradas con grado I, nivel 2 entraron en el Sistema para la Autonomía y Atención a la Dependencia, en cumplimiento de la Ley 39/2006 de 14 de diciembre, de Promoción de la Autonomía Personal y Atención a la Dependencia, lo que supone avanzar en el desarrollo de la citada Ley, que tiene prevista su culminación el 1 de enero de 2013, con la entrada el Sistema de las personas valoradas con grado I, nivel 2.

Las dos leyes citadas anteriormente, configuran las bases del ordenamiento jurídico en relación al sistema de servicios sociales, y ambas reconocen el derecho subjetivo de acceso a sus prestaciones y servicios. Velar por su desarrollo y cumplimiento constituirá la tarea principal de la Dirección de Alta Inspección.

En esta línea las actuaciones que se han desarrollado en el ejercicio 2011 han consistido en crear las bases de actuación de la Alta Inspección, como un órgano reconocido por todas las Instituciones con responsabilidad en el desarrollo del sistema de servicios sociales, que posibilite la creación de un sistema estructurado y homogéneo en todo el territorio y que garantice la seguridad jurídica e igualdad en el acceso a los servicios sociales a toda la Ciudadanía Vasca.

Goi Ikuskaritzak zaintza-eskumen bat dauka, baina ez da kontrol orokor eta zehaztugabe bat, baizik eta egiaztapeneko edo fiskalizazioko tresna bat. Helburua da eskumeneko euskal herri-administrazioen aldetik gizarte-zerbitzuen arloko arauzko edukien betearazpena fiskalizatzea, jarduera guztiz juridikoa baita.

Hortaz, ez da kontrol normalak eta arruntak gauzatzen dituen ahalmen bat, izan ere horren esku-hartzeak izaera berezia eta apartekoa izan behar baitu, ekintzen gainean jardun ordez, oro har onartutako herri-administrazioen jardueren gainean jardun behar duena.

Era berean, Goi Ikuskaritzak Sistemaren zentroak, zerbitzuak eta prestazioak ikertuko ditu, baina gizarte-zerbitzuetarako eskubide subjektiboa gauzatzen dela bermatzeko helburuarekin, baita antolamendu juridiko aplikagarriaren betearazpena eta zaintza bermatzeko ere.

Goi Ikuskaritzaren prozedura guztiak berrikusteko edo instrukzioko fasearekin hasten dira (ikerketak, azterlanak edo analisiak, ebaluazioak, eta abar), eta fase horren amaieran irizpen bat edo txosten bat egitearen edo ez egitearen erabakia prozedura hasteko moduaren mende egongo da.

Eta honetan jardun du Goi Ikuskaritzak 2011. urtean: hainbat azterlanen bitartez, egun EAEn Gizarte Zerbitzuek bizi duten egoeraren ezagutza diagnostikora gerturatzeko.

Horren ondorioz, 2012. urtean Gizarte Zerbitzuen funtzionamenduaren egiaztapenaren zehaztapena egitea erabaki da, indarreko araudia betetzeari dagokionez, honako eremu hauetan:

- Mendekotasun Egoeran dauden Pertsonen Autonomia Sustatzeko eta Horientzako Arreta Arautzeko abenduaren 14ko 39/2006 Legeak hiru lurralde historikoetan duten ezarpen-mailari buruzko azterlana.
- Eusko Jaurlearitzak landutako diagnostiko-tresnen erabilera-mailari buruzko analisia.
- Foru Aldundiek mendekotasuna eta baliaezintasuna balioesteko erabiltzen dituzten tresnei buruzko analisia.
- Zerbitzu soziosanitarioen estaldura-mailari buruzko txostena.
- Babesgabetasun-arriskuko, mendetasuneko edo gizarte-bazterkeriako egoeretak artapenari buruzko azterketa (itxarote-zerrendak...).
- EAEn Gizarte Zerbitzuen arloko eskumenak dituzten administrazioen artean babesgabetasunaren, mendekotasunaren eta gizarte-bazterkeriaren gaineko arretaren jarraitutasunari buruzko azterlana.

La Alta Inspección tiene una competencia de vigilancia que constituye, no un control genérico e indeterminado sino un instrumento de verificación o fiscalización. Consiste en fiscalizar el cumplimiento de los contenidos normativos en materia de servicios sociales por parte de las administraciones públicas vascas competentes, tratándose de una actividad señaladamente jurídica.

No se trata, por consiguiente de una facultad que ejercite controles normales y ordinarios, sino que su intervención ha de tener un carácter singular y excepcional que ha de versar, no sobre los actos sino sobre las actividades globalmente consideradas de las administraciones públicas.

La Alta Inspección asimismo investigará centros, servicios y prestaciones del Sistema pero con el objetivo de garantizar el ejercicio del derecho subjetivo a los servicios sociales y el cumplimiento y observancia del ordenamiento jurídico aplicable.

Todo procedimiento de Alta Inspección comienza con la fase de comprobación o instrucción (investigaciones, estudios o análisis, evaluaciones, etc.), y lo que determina que se elabore un dictamen o un informe al finalizar aquella es precisamente la forma de iniciarse dicho procedimiento.

Y a esto es a lo que dedicó la Alta Inspección en 2011, en obtener, mediante una serie de estudios un acercamiento al conocimiento diagnóstico de la situación actual de los Servicios Sociales en la CAPV.

Derivado de ello se decide iniciar en el ejercicio 2012 la concreción de la comprobación del funcionamiento de los Servicios Sociales en su relación con el cumplimiento de la normativa vigente, en las siguientes áreas:

- Estudio sobre el nivel de implantación de la Ley 39/2006 de 14 de diciembre, de Promoción de la Autonomía Personal y Atención a la Dependencia, en los tres Territorios Históricos.
- Análisis sobre el nivel de uso de los diferentes instrumentos de diagnóstico elaborados por el Gobierno Vasco.
- Análisis sobre los instrumentos de valoración de la Dependencia y de la discapacidad utilizados por las Diputaciones Forales.
- Estudio sobre el nivel de cobertura de los servicios sociosanitarios.
- Estudio sobre la atención a las situaciones de riesgo de riesgo de desprotección, dependencia y exclusión social (listas de espera...).
- Estudio sobre la continuidad de atención de la desprotección, de la dependencia y de la exclusión social entre las diferentes administraciones competentes en materia de servicios sociales en la CAPV.

- Herritarrekiko lehen eta bigarren arreta-mailan dauden koordinazio eta bideratze motei buruzko azterketa, baita herritarren eskubideen estaldurarekiko egokitzapen-mailari buruzkoa ere.

- Estudio sobre los tipos de coordinación y derivación existentes entre la atención a los ciudadanos y ciudadanas en los niveles primario y secundario y su relación con la cobertura adecuada a los derechos que les asisten.

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
<p>1. GIZARTE ZERBITZUETAKO KATALOGOKO ZERBITZUAK ETA PRESTAZIOAK EMATEKO ESTALDURAK ATZEMANDAKO LAGUNTZA ESKAERETARA EGOKITZEARI DAGOKIONEZ AURRERA EGITEA, BAITA ZERBITZUEN LURRALDE ANTOLAMENDUARI DAGOKIONEZ ERE.</p> <p>1. EAEko Gizarte Zerbitzuen Mapa onartu eta aplikatzea.</p> <p>2. Gizarte Zerbitzuetako arloen, sektoreen eta oinarritzko eremuen mugapen geografikoa, Gizarte Zerbitzuen Mapan ezarritako irizpide orokorren arabera.</p>	1	<p>1. AVANZAR EN LA ADECUACIÓN DE LAS COBERTURAS DE ATENCIÓN DE LOS SERVICIOS Y PRESTACIONES DEL CATÁLOGO DE SERVICIOS SOCIALES A LAS DEMANDAS DE ATENCIÓN DETECTADAS, ASÍ COMO EN LA ORDENACIÓN TERRITORIAL DE LOS SERVICIOS.</p> <p>1. Aprobación y aplicación del Mapa de Servicios Sociales de la CAPV.</p> <p>2. Delimitación geográfica de las áreas, sectores y zonas básicas de Servicios Sociales, de acuerdo a los criterios generales establecidos en el Mapa de Servicios Sociales.</p>
<p>2. ZAINITZA RATIOAK ETA/EDO ZERBITZUEN INTENSITATEA EGOKITZEA INDARREKO ARAUDIRA EGOKITZEKO.</p> <p>1. Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Zerbitzuen eta Prestazioen Zorroari buruzko Dekretua onartzea.</p> <p>2. Zerbitzuen eta prestazioen baliabide materialak, funtzionalak eta langile-arlokoak ezartzea.</p>	1	<p>2. ADECUAR LAS RATIOS DE ATENCIÓN Y/O LA INTENSIDAD DE LOS DIVERSOS SERVICIOS PARA SU ADECUACIÓN A LA NORMATIVA VIGENTE</p> <p>1. Aprobación del Decreto de Cartera de Prestaciones y Servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales.</p> <p>2. Establecimiento de los requisitos materiales, funcionales y de personal de los distintos servicios y prestaciones</p>
<p>3. KALITATEZKO GIZARTE ZERBITZUAK SUSTATZEA, EUSKO JAURLARITZAREN ZUZENEKO ERANTZUKIZUNEN ESPARRUETAN</p> <p>Zuzeneko Ekintzakotzat jotzen diren zerbitzuen kudeaketa.</p> <p>1. Familia-bitartekotzakako zerbitzuetan irekitako espedienteak.</p> <p>2. Euskadiko Telelaguntza Zerbitzuaren erabiltzaileak.</p> <p>3. Nazioarteko adopzioarako erakunde laguntzaile akreditatu berriak.</p> <p>4. Ezinduentzako aparkatzeko txartelak, faltsutzea eragozteko formatu berri batekin.</p>	<p>1.200</p> <p>25.000</p> <p>5</p> <p>5.000</p>	<p>3. PROMOVER SERVICIOS SOCIALES DE CALIDAD, EN AQUELLOS ÁMBITOS DE RESPONSABILIDAD DIRECTA DEL GOBIERNO VASCO</p> <p>Gestión de Servicios determinados como de Acción Directa.</p> <p>1. Expedientes abiertos en los Servicios de Mediación familiar.</p> <p>2. Personas usuarias del Servicio Vasco de Teleasistencia.</p> <p>3. Entidades colaboradoras de adopción internacional nuevas acreditadas.</p> <p>4. Tarjetas de estacionamiento para personas con discapacidad, con un nuevo formato para impedir su falsificación.</p>

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
5. Enplegu eta prestakuntza-sistemekin koordinatuz, Gizarte Zerbitzuetako profesionalen trebakuntza eta prestakuntza bultzatzea.	1	5. Promoción, en coordinación con los sistemas empleo y formación, de la cualificación y formación de los profesionales de los Servicios Sociales.
